


**“Biharko Izarrakek duen formatuak nabarmentzeko aukera ematen dio pilotariari”**



**Gorka Otaduy Sanchez**  
Pilotaria • 26

**Aspaldiko elur jasarik handienak irudi politak eta trafiko arazoak ekarri ditu Durangaldera**

**DURANGALDEA** | Eguaztenean mara-mara bota zuen elurra, eta goizean zehar errepideak kolapsatuta egon ziren. • 6



2018ko martxoaren 2a | 16. urtea | 711. alea  
Durangaldeko astekaria

www.anboto.org

**anboto**

TOKIKOM



**Greba egiteko prest**

Martxoaren 8a greba eguna izango da lehenengoz. Amantalak balkoietan eskegi, eta besoko morea janzteko deia egin diete emakume guztiei greba prestatzen dabiltzanek. Horrez gain, herririk herri makina bat ekitaldi egongo dira. • Gehigarria

LEHIOZ ELORRIAGA

**Gaur iritsiko da zinemetara Errementari pelikula**

**Zinema** | Durangaldeko hainbat lagunek parte hartu dute Paul Urkijoren filmean, tartean, Eneko Sagardoy aktoreak eta Lara Izagirrek.

**24. orrialdean**

**gandarias**  
Interiorismo

**LIKIDAZIOA**  
%70erainoko deskontuekin

Arkotxa kalea, 6 - 48200 Durango - info@mueblesgandarias.com - Tel.: 946 810 722



**Roberto Sarriugarte  
Iraeta**  
Durango Ardo Saltsaneko  
antolatzailea  
**Zaldibar | 1962**

# “Durangoko tabernen eskaintza asko zabaldu da; neurri batean, azokari esker”

Ardoaren eta gastronomiaren mundua gustuko dutenek Durango Ardo Saltsan Azokan gozatzeko aukera izango dute, martxoaren 10ean

## **DURANGO ARDO SALTSAN • J.G.**

**Ardoaren unibertsoan murgildu zenean mundu berri bat deskubritu zuen Roberto Sarriugartek. Harrezkero, zaletasuna indartzen joan da, modu autodidaktan. Gaur egun, Bizkaiko Txakolinaren dastatze komiteko kide da. Era berean, martxoaren 10ean Landako Gunean antolatuko duten Ardo Saltsan Azokaren antolatzaileetako bat da.**

### **Ardo Saltsanen 11. edizio honetarako zer prestatu duzue?**

Ardoaren mundua eta gastronomiarena uztartzen ditugu. Hainbat ardo azoka dago Euskal Herrian, baina ez dugu ezagutzen biak batzen dituenik. Ardo Saltsanera doazen bisitariak gauza berriak ezagutzera edo gustuko dituzten ardoez gozatzera joaten dira upategiek jartzen dituzten mahaietara. Era berean, upategietako jendeagaz berba egiteko aukera egoten da. Bestalde, egunean zehar 3 ardo-dastatze egingo ditugu.

### **Zenbat upategi batuko dituzue?**

50 mahaitan 80 upategiren ardoak dastatu ahalko dira. 250 ardo mota egongo dira.

### **Nongo ardoak izango dira?**

Inoiz Italiatik eta Portugaletik ere etorri dira, baina orain estatuko ekoizleak etortzen dira. Euskal Herrikoak, katalanak, galziarrak, errioxarrak, Ala-

cantekoak, Jerezkoak, Penedeseko cavak... Ribera Duero, Bizkaiko Txakolina, Getariko Txakolina, Costers del Segre, Rías Baixas, Ribeiro, Manchuela eta abar izango dira dastagai.

### **Arlo gastronomikoan, zein eskaintza izango duzue?**

Ketutako jakiak (izokina, foie), Asturiasko ostrak, Mediterraneoeko ganbak... Urtero ahalegintzen gara jaki izar bat ekartzten. Iaz txingarra izan zen, eta txuleta txingarretan prestatu genuen. Aurtengo jakia arroza

**“ 50 mahaitan 80 upategiren ardoak dastatu ahalko dira. 250 ardo mota egongo dira”**

izango da, era desberdinetara prestatuta. Miniaturako sukaldaritza ere izango da.

### **Zelan sortu zen Ardo Saltsan duela 11 urte?**

Iñaki Uribek bere dendan antolatu zuen lehenengoz, 2006an. Leku oso txikia zen, eta arrakasta zuela ikusi zuen. Proiektua martxan jartzeko proposamena egin zigun Juanpe Azkarateri eta bioi, eta Ardo Saltsan jarri genuen martxan. Zereginak oso banatuta ditugu. Iñaki gastronomia arloaz arduratzen da. Ni ardoagaz arduratzen naiz,

eta Juanpe azpiegitura eta espazioaz. Sasoi hartan kalitatezko azoka bat egitea zen erronka. Era berean, azoka desberdin bat egin gura genuen, gastronomia eta ardoa uztartuko zuena.

### **Azoka honek zer du desberdin?**

Azoka gehienetara upategietako komertziala joaten da. Guk gura duguna da upategietako jendea joatea. Komertzialek oso ondo egiten dute euren lana, baina ez da berdina haiekin edo mahastietan egunero dabilenagaz berba egitea. Helburu pedagogiko hori hasieratik izan dugu. Gaur egun, kalitate horretara heldu gara, eta mantentzea da erronka. Izan ere, azokak, orokorrean, gainbeheran daude. Berrikuntza ezinbestekoa da, eta, horretarako, hausnarketa sakona egitea garrantzitsua da.

### **Ardo Saltsanek zein bilakaera izan du urte hauetan?**

Lehenengo urtean 19 mahai baino ez ziren egon, baina guretzat arrakastatsua izan zen. Aldaketa, batez ere, espazioaren banaketan gertatu da. Estetika aldetik ere asko aldatu da. Lehen denda txiki bat genuen, eta orain saltoki handi bat dugu. Hasieran lehenengo modulua erabiltzen genuen, eta orain Landako Gunean espazio osoa.

### **Zein publiko mota duzue?**

Ardoaren ingurua interesa duten pertsonak dira. Publiko ludi-

koa da. Beste erronketako bat publiko profesionala erakartzea da. **laz zenbat bisitari izan zenituzten?** 1.000 inguruan gaude. Ez dugu jende askoz gehiago jasotzeko anbizioa, horrek kalitatean galera eragingo lukeelako. Oso espazio ona da eta 1.000 lagun gustura ibili daitezke. Hala ere, gurako genduke jende berria etortzea Bilbo ingurutik. Zaila da, inguru hartan beste zirkuitu batzuk dituzte eta.

**Jende gaztea ardoaren mundura hurbiltzen da?**

Azken urteetan jende gaztea etortzen ari da, bai. Eta oso formal etortzen dira, interes handiagaz. Dastatzeetan parte hartzen dute eta, zentzu horretan, oso pozik gaude. Eurak dira etorkizuna.

**Roberto, zu ogibidez irakaslea zara Berrizko eskolan. Nondik datorkizu ardoaren zaletasun hau?**

Orain 30 bat urte Zuberoa jate txera joan ginen bazkaltzera. Inoiz jan dudak lekuri onena da. Ardoak ez ninduen larregi erakartzen, baina hantxe piztu zitzaidan zaletasuna. Ondoren, diru askorik barik, zenbait dendatara joan eta ardoa hartzen hasi nintzen, etxean dastatzeak egiteko. Beraz, autodidakta naizela esan daiteke.

**Enologia arloan, zenbat saltsatan sartuta zaude?**

Hamabostean behin Berrian idazten dut, eta Bizkaiko Txakolinaren Dastatze Batzordean sartuta nago. Urtero, merkatura atera aurretik, txakolinak azterketa bi pasatzen ditu. Bata, laborategian egiten den azterketa kimikoa da, parametro batzuk betetzen dituen aztertze. Eta, ondoren, txakolin batzordera ekartzen dute. Dastatze itsuak izaten dira. Guk ez dakigu zer dastatzen ari garen, eta oniritzia eman behar diogu. Kalitatez minimo batzuetara heltzen dela ziurtatzea izaten da helburua.

**Zaletasun legez, ardoaren munduak zer ematen dizu?**

Gehien gustatzen zaidana ardoa dastatzea da. Edatea ere bai, baina dastatzea beste gauza bat da. 1982ko ardoa dastatzen ari zarela, esaterako, urte horretan Euskal Herrian zer gertatu zen jakitea ere gustatzen zait.

**Zein da gehien gustatu zaizun ardoa?**

Contino Viña del Olivo deitzen da, 2005ekoa. Aspaldiko urteetan edan dudak ardorik onena izan da. Lehengoan, bikotekidea eta biok lagun batzuen etxera joan ginen afaltzera. Gainera, botila estalita eraman nuen, lagunak ez zezan ardoaren izena ikusi, beti esaten baitit Contino ez duela gogoko. Berak ordura arte edandakoa arrunta zen, eta nik eraman nuena, gorena. Itzela izan zen.

**Ardo batek zer izan behar du Rober Sarriguarte liluratzeko?**

Batez ere oreka fruta eta egurren artean. Azidotasunean ere bai. Ahoan bolumena ere bere neurrian izan dezala gustatzen zait. Aitortu behar dut apardunak gero eta gehiago gustatzen zaizkidala. Eta bikotekideari ere gustatzen zaizkionez... cavak eta xanpainak.

**Zugaz poteoan joatea konplikatu izango da.**

Pixka bat kexatia naizela esaten didate, bai. Baina ni baserritarra naiz, sibarita ez. Hala ere, Durangaldeko tabernetan ikusten ditudan gauza batzuek amorrua ematen didate.

**Zerk amorrarazten zaitu?**

Leku batzuetan txakolina eskatu eta, lehenengo, Getariakoa ateratzen dizute. Bizkaikoa baduten galdetu, eta badaukatela diote. Bizkaikoa, Gipuzkoakoa edo Arabakoa baduzu, ez al da logikoa goa zein gura duzun galdetzea? Ez naiz gustuez ari. Getariakoa gura baduzu, horixe eskatuko duzu. Eta txarrena da Durangaldeko taberna askotan ez dutela Bizkaiko txakolinik. Lotsagarria da, ekoizpena badago eta. Joan zaitez Getariara eta eskatu Bizkaiko txakolina...Tabernetan horrelakoak gertatzen zaizkidanean tabernariari galdetzen diot, eta ingurukoek esaten didate lotsarazi egiten ditudala. Ezin naiz isilik gelditu eta... (barrez)

**Aitortu behar da ardoa edateko ohi-turak asko aldatu direla Durangaldean. Tabernetan denetarik dago.**

“**1982ko ardoa dastatzen ari naizela, urte horretan zer gertatu zen jakitea ere gustatzen zait**”

“**Jende gaztea etortzen ari da. Eta oso formal etortzen dira, interes handiagaz**”

Eskaintza asko zabaldu da eta hori, neurri handi batean, azokari esker izan da. Lehen, tabernetan Coto eta ardotxo bat edo bi zeuzkaten. Orain, Goienkaleko hainbat tabernatan eta beste hainbatetan zerrenda aurkituko duzu. Eta orain, kopan edaten da. Hortxe igartzen da ohitura aldaketa.

**Zuk poteoan zer edaten duzun galdetu diezazuket?**

Niri Itsasmendi gustatzen zait, Bizkaiko Txakolina. Rugby tabernara bagoaz, berriz, cava edaten dut, oso gozoa dutelako eta prezio onean gainera. Lehen beltza edaten nuen, baina orain goizez eta arratsalde txakolina.



## Kirola-Gaztedia eta ikuskatzaile lanpostuak lehiaketa publikora

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Elorrioko Udalak lanpostu bi ateratu ditu lehiaketa publikora. Joan zen asteko osoko bilkuran jakitera eman zuten, Kirola eta Gaztedia sailerako teknikaria eta ikuskatzaile teknikaria behar ditu Elorrioko Udalak. Hori dela-eta, lanpostu biak lehiaketa publikora aterako dituzte.

Ikuskatzaile teknikariari euskarazko laugarren maila eskatuko diete, eta Kirol eta Gaztedia saileko teknikariari, berriz, hirugarren maila. "Hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik eskakizun hauek eskatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu", adierazi zuten EH Bilduko eta EAJko kideek.

## Jasokundek 25 urte egingo ditu eta jaialdi bat prestatzen dabilta ospatzeko

**MALLABIA • AITZIBER BASAURI**

Aurten 25 urte egingo ditu Mallabiko Jasokunde Abesbatzak. Hainbat ekitaldi prestatzen dabilta urteurren berezi hori ospatzeko. Esaterako, maiatzaren 26an, jaialdi bat egingo dute dantzariekin batera pilotalekuan. Abesbatzako partaide ohiei gaur egun koruan dabilzanekin batera kanta bat abes-teko deia egin diete. Hori izango da urteurrenako ekimen nagusia, baina ez bakarria. Izan ere, kultur hamabostaldian Jasokunderen ibilbideko argazkiak erakutsi gura dituzte. Horregatik, helbide elektronikoko bat bideratu dute abesbatzako argazkiak bidaltzeko ([jasokundeabesbatza@gmail.com](mailto:jasokundeabesbatza@gmail.com)), eta herritarrei euren argazkiak helarazteko eskatu diete.



Barikuan, zapatuan eta domekan goiz zein arratsaldetan irekiko dute azoka.

# Azken urteetako postu kopururik handienagaz ireki ditu gaur ateak Durangoko Aukera Azokak

Gaur hasi eta domekara bitartean, Durangoko, Iurretako eta Abadiñoako 32 establezimenduk parte hartuko dute azokan

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Gaurtik domekara Landako Gunean izango den 13. Aukera Azoka bisitatzen duenak aspaldiko urteetako eskaintzarik zabalena aurkituko du. Dendak Bai elkarteak antolatuta, Abadiñoako, Iurretako eta Durangoko 32 establezimendu batuko ditu. Azken aldietan, 26 bat izan dira, eta inoiz 19 ere bai.

Askotariko produktuak ohi baino prezio merkeagoan aurki-

tuko dituzte azokako bisitariak. Nagusien eta umeen arropak, oinetakoak eta etxerako tresnak dira azokan aurkitu ahaliko diren produktuetako batzuk.

Sarrera doakoa da eta erosketak egiten dituztenek ordu bian dohainik izango dute Landako Guneako aparkalekua.

Azoka bestelako eskaintzekin osatuko dute. Adibidez, gune gastronomiko bat egongo da. Haurrek

aisialdirako gune propio bat izango dute eta sukaldaritza zein gozogintza tailerretan parte hartu dezakete. Helduei begira okin baten hitzaldia ere antolatu dute. Horrez gainera, askotariko zozketak egingo dituzte.

**Durangeren azoka**

Hamabost egunen barruan bigarren Aukera Azoka izango da honakoa. Aurrekoak eskualdetik kanpoko antolatzaileak eta partai-

arren. Horixe da, hain zuzen, Bambas dendako Kristina Fernandez gehien haserretzen duena. "Egiten duten deiagaz Durangoko dendek antolatzen duten azoka dela dirudi, baina ez da horrela", adierazi du. Oliver arropa dendako Agurtzane Azkareteren ustez ere "ez dute garbi jokutzen". "Durangoko ostalariak eurekin daudela eta antzerako gezurrak esan dituzte", gehitu du. Bambas eta Makawa dendako Asier Arrietak bat egiten du iritzirik horregaz eta uste du udalak "ez luketela utzi behar" Durangaldean horrelako azokak egiten.

**Ezagutzera emateko aukera**

Aukera Azokara huts egiten ez dutenetakoak dira hirurak. Saltzailerek denboraldiko stockari irteera emateko eta erosleek produktuak merkeago lortzeko aukera aproposa dela uste dute. Gainera, "kanpotik jendea etortzen denez, dendak ezagutzera emateko aukera ematen digu", adierazi du Fernandezek.



Kristina Fernandez, Asier Arrieta eta Agurtzane Azkarete Aukera Azokaren aurkezpenean.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko martxoaren 2a  
16. urtea - 711. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Eneritz Urrutibeaskoa Elordi eta Alazne Salcedo Artetxe.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasumaga Guezuraga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Mikeldiko Idoloa Durangora ekartzeko, epaitegietara jotzea aztertuko du udalak

Kristo aurreko mendeetako datazioa duen eskultura historikoa sorterrira ekartzea gura dute; Euskal Museoak emandako ezezkoen aurrean, bide judizialari ekitea da asmoa



Muruetabarriko etxe berrien ondoan dago ipinita Idoloaren erreplika.

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Mikeldiko Idoloa Durangora ekartzeko, epaitegietara jotzea aztertuko du udalak. Bilboko Euskal Museoan dago eskultura historikoa, eta hainbat bidetatik Durangora ekartzea eskatu arren, ezezkoa eman dute beti, monumentua kaltetzeko arriskua arrazoi lez erabilia. Horren erreplika bat dago Durangon, Mikeldi kalearen inguruan, originala topatu zuten zonaldean.

**Adituen arabera, Kristo aurreko V. eta I. mendeen artean sortutakoa izan liteke Mikeldiko Idoloa**

EH Bilduk aurkeztu zuen mozioa martitzeneko osoko bilkuran, eta gainerako denek onartu zuten, PPK izan ezik —Fran Garatek ez zuen jarrera arrazoitu—. EAJk eta PSE-EEk, epaitegietara joatekotan, aditu batek txosten bat egitea pro-

posatu zuten, bide judizialerako bermea edukitzeko; EH Bilduk ere ondo ikusi zuen ideia eta bide hori jorratuko dute.

**‘Gernika’-ren eran**

Ion Andoni Del Amok (EH Bildu) gogoratu zuen orain urte bi ere udalak aho batez eskatu zuela Idoloa etxeratzea, baina ezezkoen aurrean, beste pauso bat emateko ordua dela uste du. Alderdi horretako kideak museoan bertan ere izan

ziren eskaera zuzenean aurkezteko. Picassoren *Gernika* Gernikara ekartzeko ezarri izan diren oztopoekin alderatu zuen Del Amok Mikeldiagaz gertatzen ari dena, eta, bere ustez, aitzakiak dira denak.

**1896an atzera ere lurpetik atera eta ermitaren ondoan ipini zuten**

**Kristo aurrekoa**

Adituen arabera, Kristo aurreko V. eta I. mendeen artean sortutakoa izan liteke Mikeldiko Idoloa, II. Burdin Arokoa hain zuzen. Beraz, bere balio artistiko eta historikoa handia litzateke. 1864an topatu zuten Mikeldiko San Bizente basilizan, lurpean. Dirudienez, berriz ere partzialki lurperatuta geratu zen, ze 1896an atzera ere lurpetik atera eta ermitaren ondoan ipini zutela jasota dago. Gero, 1920an, Museoara eraman zuten.

Meseta iberiarrean topatutako eskultura zoomorfoen antzerakoa da, txerri edo zezenak irudikatzen zirenak gehienak. Mikeldikoaren kasuan, hanka artean duen diskoan karaktereak idatzita daudela ere uste izan da. Harearritzkoa da, ekarri gura duten Durangoko harearritz landutakoa.

## Durangoko Udalaren Euskara Kontseiluan parte hartzeko bilera, martxoaren 7an

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Durangoko Udalak Euskara Kontseilua berraktibatu gura du. Horretarako, euskalgintzako eragile batzuekin (Berbaro elkarte, Anboto eta Plateruena) lehenengo pausoak eman ditu dagoeneko. Azaroko osoko bilkuran udalak foro honen araudia onartu zuen aho batez. Orain, herriko elkarte zein norbanakoen parte-hartzea bultzatu gura dute. Ekimenaren berri eman guran, martxoaren 7an, eguaztena, 18:30ean Pinondo

**Martxoaren 7an Pinondo Etxean egingo den batzarrerako deia egin dute**

Etxean egingo den batzarrerako deia egin dute. Durango herri euskaldunagoa bilakatzeko langintzan ekarpena egin gura duten guztiei gonbit egin diete. Bileran, kontseiluaren helburu nagusien berri emango dute.

## Udal informazioa herritarren eskura ipintzea eskatu du Herriaren Eskubideak

**DURANGO • M.O.**

Herritarrei informazioa emateko eta euren partaidetza sustatzeko asmoz, ordenantza bat onartu zuen udalak uztailean. EH Bilduren iniziatibaz garatu-

**Gobernuko talde bien arabera, neurri horiek martxan jartzeko lanean dabilta**

tako arautegi hori, baina, ez da praktikara eramaten, Herriaren Eskubidearen ustez. Martitzeneko bilkuran hainbat eskari egin zituen: aurrekontuaren artxiboa Interneten eskegitzea, gardentasun atarian deialdiak eta aktak argitaratzea, bilkuren grabazioak eskura jartzea... EH Bilduk ere begi onez ikusi zuen.

EAJk, PSE-EEk eta PPK ez zuten ekimena babestu. Gobernuko talde bien arabera, neurri horiek martxan jartzeko lanean dabilta, eta mozioa erretiratzeko eskatu zuten.

# Hiru eraso sexista gertatu dira azken astean Durangon, eta elkarretaratze bi egin dituzte egoera salatzen

Emakume batek bere bikotekidearen eraso jasan zuela salatu zuen; bestalde, zapatu gaez salaketa bi egin zituzten

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Indarkeria matxistak berriro ere Durangoko panorama soziala astindu du, azken astean hiru eraso salaketa egon eta gero. Horren aurrean, mugimendu feministak kalera

zuen gertatutakoaren berri, eta babesa erakustez gainera udal baliabideak ere bere eskura ipini zituen.

Beste bi erasoak zapatu gaez jazo ziren. 40 Minutu Rock jaialdiaren harira jendetza batu zen

Durangon; hala ere, emakumeen salaketak ez ziren Landako Gunean izan, kalean baizik. Jaialdiaren antolakuntzak eta Bilgune Feministak protokolo bat landu zuten zapatutako; erasoak jasanda-

ko neskek antolakuntzak edalontzi guztietan ipinitako telefonora deitu zuten laguntza eske -24 orduko arreta izan zen-. Gainera, hainbat emakumek brigada feministak ere egin zituzten egun osoan.

**Horren aurrean, mugimendu feministak kalera irteteko deia egin du**

irteteko deia egin du, eta elkarretaratze bana egin ziren martitzeneko eta atzo iluntzean.

Aipatutako erasoetako lehena astelehenean atera zen argitara. Emakume batek otsailaren 21ean bere gizonarengandik eraso jasan zuela salatu zuen. Udalak eman



Martitzeneko Andra Marian egindako elkarretaratzea. Atzorako ere deituta zegoen.

# Durangaldea aspaldi ez bezala apaindu du elurak, baina trafiko arazoak ere eragin ditu

Eguazten goizean arazo handiak sortu ziren eskualdeko garraio sarean: Bizkaibusek zerbitzua eten zuen eta Euskotrenek, murriztu; trena ordu eta erdiz geldirik egon zen Zornotzan; Areitioko mendatea zarratuta egon zen

## DURANGALDEA • ANBOTO

Aspaldi ez bezala egin zuen elurra eguaztenean, eta Durangaldea zuri-zuri apainduta geratu zen, batez ere goizeko lehen orduetan. Gauetz mara-mara bota zuen eta, bizilagunak itzartzeko, aparteko soinekoa zuten jantzita gure bazterrek. Aurten tokatu zaigun negu gogorraren beste erakustaldi bat izan da. Izan ere, noiztik ez du horrela egin elurrik? Baina, edertasunaren alde bisual eta nostalgikoa kenduta, arazo handiak sortu ziren eskualdeko errepideetan.

## Trafikoa kolapsatuta

Eguna argitzerako, Areitio zarratuta zegoela abisatu zuten Trafiko zuzendaritzatik, eta gainerako mendateetan kontuz ibiltzeko gomendioa emanda zuten. Orokorrean, trafiko sarea kolapsatuta zegoela jakitera eman zuten. Iurretan eta Zornotza artean, ordu bitik gora geldirik egin behar izan zituzten askok. Elurra kentzeko maki-



Zornotzara bidean ordu bitik gora egon ziren autoak geldirik.

nak eta traktoreak han eta hemen zebiltzan, baina baliabide horiek guztiak ez ziren nahikoa.

## Herritar asko lanera joan ezinik geratu ziren, eta ikasle batzuk eskolara joan ezinik

Herritar asko lanera joan ezinik geratu ziren, eta ikasle batzuk eskolara joan ezinik. Otxandion eta Durangoko Ibaizabalen, adibidez, klaseak bertan behera utzi zituzten.

trena ordu eta erdiz geldirik egon behar izan zela Zornotza pareko trenbidean.

Udalek eta auzotarrek gogor egin zuten lan eragina ahalik eta murriztena izateko. Durangon 30 behargin aktibatuta zituzten.

## Makinak eta traktoreak han eta hemen zebiltzan, baina baliabide horiek guztiak ez ziren nahikoa

## Bizkaibusik ez

Gainera, Bizkaibusek zerbitzuak eten zituen eguerdira arte. Trenak bai, ibili ziren, baina maiztasun txikiagoz. Aipagarria da Bilborako

# Hiru hilabete barru Etxanoko bizilagunak Zornotzako herrigunera heldu ahalko dira bidegorriari jarraituz

Etxanorako bidegorria amaitzeko bigarren faseko lanak hasi dituzte, 500.000 euroko inbertsioagaz



Bizikletariak hiru metro zabaleko erreiak eta oinezkoek metro biko espaloiak izango dituzte.

## ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzan Etxanoko elizaraino helduko den bidegorria amaitzeko lanak hasi berri dituzte. Proiektua gauzatzen dutenean, Txolonen hasi eta Etxanoraino oinez zein bizikletan bidegorritik joateko aukera egongo da.

## Bigarren fasean, bidegorria Bañerako bidegurutzetik Etxanoko elizaraino luzatuko dute

Proiektuaren bigarren fasean, bidegorria Bañerako bidegurutzetik Etxanoko Andra Maria elizaraino luzatuko dute. Bidegorri berriak hiru metroko zabalera izango du, eta zornotzarrek errei bi izango dituzte bizikletan ibiltzeko, ba-

## Errepideko asfaltoa berriztu eta ibilgailuen abiadura orduko 50 kilometrora mugatuko dute gune horretan

koitza norantza batekoa. Oinezkoek bi metroko zabalerako espaloia jasoa izango dute. Horrez gainera, errepideko asfaltoa berriztuko dute eta ibilgailuen abiadura muga orduko 50 kilometrora gutxituko dute. Argi berriak ere jarriko dituzte.

Lanek 500.000 euroko aurrekontua dute eta hiru hilabete barru amaitzea aurreikusten dute. "Hobekuntzei esker, herriko auzoak hobeto lotuta egongo dira eta, gainera, txirrindularien eta oinezkoen bide segurtasuna areagotuko da", azaldu du udalak ohar batean.

## Kultur etxeko musika gela handitu egingo dute areto nagusiko espazioa erabilita

### OTXANDIO • J.D.

Kultur etxeko lehenengo solairuko espazioa berrantolatu egingo du udalak. Bi gela nagusi daude bertan: musika klaseak emateko erabiltzen dena eta hitzaldiak zein aurkezpenak egiteko prestatuta dagoena. Musikari bideratutako espazioa handitzea da asmoa, areto nagusia txikituta.

Oraindino ez dute erabaki lehen solairuko espazio hori zehatz zelan berrantolatu, baina plana diseinatu ostean lanak aurten egiteko asmoa dute.

## Liburutegitik entzun ez dadin, musika gela intsonorizatzea da beste helburuetako bat

Gaur egun, musika gela Otxandioko musika bandak erabiltzen du entseatzeko, eta musika klaseak ere hantxe ematen dira. Gela hori ez dago intsonorizatuta eta goian dagoen liburutegitik entzun egiten da musika jotzen dabilzanean. Beraz, beste asmoetako bat gela intsonorizatzea da.

Herriko gainerako eraikin publikoan erabileraren gaineko hausnarketa ere egingo dute.

## Dendariak elkarteak outlet merkatua antolatuko du domeka honetan

### ZORNOTZA • J.D.

Dendariak elkarteak outlet azoka antolatuko du domekan, 10:30etik 14:30era, Herriko plazan. Urtean zehar saldu bako arropak, bitxiak eta bestelako askotariko produktuak salgai jarriko dituzte herriko zazpi establezimenduk, prezio merkeagoan. Aurten laugarren aldia egingo du ekimenak.

Erosketak egiten dituztenen artean otzarak zotz egingo dituzte. Horrez gainera, gaztetxoentzat askotariko ekintzak prestatuko dituzte. Esaterako, globoflexia saioetan eta aurpegia pintatzeko tailerretan parte hartu ahal izango dute, 11:00etatik 13:00etara. Bestalde, 12:30ean, *La Maleta de Lekim* izeneko klown ikuskizuna hasiko da.



Atontze lanez gainera, aparkalekuak egingo dituzte.

## Trebideko obrak Aste Santu ostean hastea espero du Abadiñoko Udalak

Obrak 2017 amaieran ziren hastekoak; zerbitzuetako batek eragin du atzerapena

**ABADIÑO • ARITZ MALDONADO**

Matienako trenbide zaharreko espazioa atontzeko obrak ez dira hasi oraindik. Jose Luis Navarro alkatearen arabera, "laster" hasiko dira; Eusko Trenbide Sareko iturrien arabera, "litekeena da" lanak Aste Santuko oporren ostean hastea.

**Jose Luis Navarro  
alkatearen berbetan,  
"laster" hasiko dira  
trenbide zaharreko obrak**

Izan ere, arazo bat egon da zerbitzuetako bategaz. Hala ere, ETSko iturrien arabera, arazoa txikia da eta "denbora kontua" izango da konpontzea.

Obrak 2017a amaitu aurretik ziren hastekoak, baina oraindik hasi barik daude. Behar horiekin

batera, 120 auto hartuko dituen aparkalekuak egingo dute geltokiarren alboan. Zerbitzua auzokideentzat, trenaren erabiltzaileentzat eta eskolara zein lanera doazententzat

**Industriguneetako  
eraikinetan %50 altuago  
izatea ahalbidetuko duen  
araua onartu da, baita**

pentsatuta dago. Udalak 120.000 euro bideratuko ditu proiektura.

**Industrialdeen erregulazioa**

Otsaileko plenoan, bestalde, Udala Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualak onartu zituzten. Aldaketa hauek industrialdeei eragiten diete. Besteak beste, industrialdeko eraikinetan %50eko altuera gehitu ahaliko dute (10 metrotik 15 metrora eta 12tik 18ra). Bestetik, Muntsaratz auzoan biribilgune bat egitea ekarriko du aldaketak. Gobernu Taldearen (AI eta EAJ) aldeko botoekin onartu zituzten aldaketak. Oposizioak (EH Bildu), ostera, aurka bozkatu zuen. Koalizio abertzalearen berbetan, ez da neurtu aldaketak industrialdeetatik hurbil dauden bizilagunen etxeetan izan dezakeen eragina; biribilgunea egin aurretik, azterketak egitea ere eskatu du EH Bilduk.

## Durangaldeko kirol instalazioak erabili dituzten garaitarrek, diru-laguntza eskura

**GARAI • MARKEL ONAINDIA**

Beste herri txiki batzuetan antzera, Garain ere ez dago kiroldegi publikorik, eta aktibitate batzuk egin gura dituzten herritarrek kanpora joan behar izaten dute. Adibidez, Berrizera eta Durangora jotzen dute askok. Gainera, joaten diren herriko biztanleek baino gehiago ordaindu behar izaten dute normalean, kanpokoak izatearren.

**Gura duenak martxoaren  
9a baino lehen  
aurkeztu beharko du  
laguntza eskaera**

Horregatik, diru-laguntzak eskainiko ditu udalak, 2017ko matrikulak ordaintzen laguntzeko. Gura duenak martxoaren 9a baino lehenago aurkeztu behar du laguntza eskaera.

Diru-laguntzak bermatu ahal izateko, 2.000 euroko partidak dauka udalak.

**IZURTZA • JOSEBA DERTEANO**

Gaztelekua erabilera anitzeko gune bihurtzea hausnartzen dabil udala. Gaur egun gazte gutxi erabiltzen dutela eta, herritar batzuek espazio horri beste erabilera bat eman ahal zitzaiola proposatu zuten Tokiko Agenda 21eko batzar batean, eta udal ordezkariak egoera aztertzea erabaki zuten.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorren harira egingo dituzten herri batzarrak herritarrek gai honi buruz dituzten ideia eta proposamenak batzeko erabili gura dituzte.

Gaztelekua gaur egun darabilten gazteekin partekatutako espazioa izango litzateke. Gaztelekuko zati bat, esaterako, neguan gurasoak euren umeekin egoteko bir-

moldatu daiteke; baita gaur egun jubilatuen lokalean egiten diren batzarrak edo tailerrak aurrera eramateko ere. "Gaztelekuko espazioa herrira zabaltzea" eta gune horri

**Gaur egun jubilatuen  
lokalean egiten diren  
tailerrak egiteko espazio  
baliagarria izan daiteke**

"bizia ematea" lirateke helburuak, Lorea Muñoz Izurtzako alkateak adierazi duenez.

Asmoa aurrera badoa, aurtengo urtean zehar proiektua egitea da asmoa, lanak hurrengo urterako utzita.

## Izurtzako Gaztelekua erabilera anitzeko gune moduan berrantolatzea hausnartuko du udalak

Herritar batzuek Tokiko Agenda 21eko batzar batean egindako eskaera da



Gaur egun gazte gutxi erabiltzen dute aparkalekuaren ondoan dagoen Gaztelekua.

# DURANGO ARDO SALTSAN

## XI. FERIA

LANDAKO GUMEA • 11:00 - 22:00 • 17€  
[www.durangardosaltsan.eus](http://www.durangardosaltsan.eus)

MARTXOA 10 2018 MARZO

Antolaketa

Babesleak

Laguntzaileak

El Rincón del Vino

en egin

SOFT

silicon

A

# “Txakurra paseatzera ateratzean gaizkileak bagina legez sentiarazten gaituzte”

Arazoari irtenbideren bat aurkitu arte, txakurrak Olazarrera eramanez ahal izatea eskatzen diote jabeek Zaldibarko Udalari



Astelehenean, Zaldibarko txakurren jabeek kontzentrazioa egin zuten udaletxe aurrean.

**ZALDIBAR • JONE GUENETXEA**

Zaldibarko txakurren jabeek hase-re daude euren animalientzako gunerik ez dutelako herrigunean. Joan zen astelehenean, 25 bat pertsonak elkarretaratzera egin zuten euren txakurrekin udaletxearen aurrean, ezohiko udal bilkura zegoela aprobetxatuz.

Abenduko osoko bilkuran aho batez onartutako araudi aldaketagaz Olazar parkea txakurrentzat debekatzea erabaki zuen udalak. Horrela, txakurren jabeek beraien

**Txakurren ordenantzari alegazioak aurkezteko asmoa adierazi dute Zaldibarko txakurdunek**

animalientzako gunerik barik gelditu dira herrigunean. Egoeraren aurrean, txakurdunek 300 sinadura batu dituzte udalaren erabakia bertan behera uzteko eta arazoari irtenbidea aurkitzeko. “Udalak irtenbide bat aurkitu bitartean txakurrekin Olazar parkera joan ahal izatea eskatzen dugu. Txakurrak solte ibiltzeko mendira joateko diosku udalak, baina hori ez da bideragarria”, adierazi du Haritz Arruabarrena zaldibartarrak. Kalkulatu dutenez, Zaldibarren 100

txakurretik gora daude. “Txakurra paseatzera ateratzean gaizkileak bagina legez sentiarazten gaituzte”, dio Arruabarrenak.

**Araudiari alegazioak**

Txakurren ordenantzari alegazioak aurkezteko asmoa adierazi dute Zaldibarko txakurdunek. Durangoko Durandog elkarteko abokatuagaz aztertu dute gaia, eta debekua “legez kanpoko” dela diote. Zapatuan batzarra egingo dute gaia aztertzeko, 12:00etan, liburutegi zaharrean. Gainera, kontzentrazio bat antolatu gura dutenez, batzar horretan zehazteko asmoa dute.

Txakurren jabeek eta udalak batzar bi egin dituzte dagoeneko. Eneritz Azpitarte kargua hartu berri duen alkateak dioenez, “lanean gabilta arazoa konpontzeko. Epe bat behar dugu herrian txakurrentzat zein espazio egokitu dezakegun aztertzeko”, gaineratu du. Olazar parkean txakurrak debekatzea abenduko osoko bilkuran arrazoitu zuen Arantza Baigorri orduko alkateak. Esan zuenez, herritar batzuek parke horretara kirola egitera joateari utzi zioten, txakurrengatik. Gainera, azaroan, hiru txakur sei urteko ume bati eraso egiten saiatu ziren Olazar parketan. Txakurren jabeen iritziz, osterara, gertaera hori oinarri hartuta txakurdun guztiak zigortzea ez da zilegia.

## Eneritz Azpitarte da Zaldibarko alkate berria, Baigorriren erreleboa hartuta

**ZALDIBAR • A.M.**

Otsailaren 26an, astelehenean, eginiko ezohiko plenoan egin zuten kargu aldaketa. Ilusioz hartu du kargua Eneritz Azpitartek. Horrez gainera, Ogasun batzordean ere jarraituko du.

Baigorrik arrazoi pertsonalak argudiatuta utzi du kargua. “Berarentzat denbora gehiago” behar duela eta “nekatuta” dagoela esan zuen. Zinegotzi legez jarraituko du legegintzaldia amaitu arte.

## Sanjuangoa-Elexpe kultur etxerako proposamenak aukeratu ahalko dira

**ZALDIBAR • A.M.**

Parte-hartze prozesu baten bidez aukeratu ahalko da Sanjuangoa-Elexpe kultur etxe berria izango denaren proiektua. Aurkeztu diren sei proiektuak udaletxeko sarreran egongo dira ikusgai, martxoaren 11ra arte. Horrez gain, bihar, martxoak 3, udal arkitektoak proposamenei buruzko zalantzak argituko ditu, eta martxoaren 6an arkitektoek proiektuak azalduko dituzte 10:00-13:00 bitartean.

## TAO berrantolatu beharko dute, Tellitun etxebizitzak eraikitzen hasiko direlako

Tellitun egoiliarrentzako 70 aparkaleku inguru daude; hala ere, uda aurretik etxebizitzak eraikitzen hasiko dira bertan

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

2015ean Trafikoa Arautzeko Ordenantza (TAO) indarrean jarri zuten Iurretan, eta egoiliarrentzat 200 aparkaleku inguru daude herrian banatuta. Horietako 70-75 inguru Tellituko aparkalekuan. Hala ere, uda aurretik etxebizitzak eraikitzen hasiko dira bertan, eta horrek TAO berrantolatzea behartu du udala. Gaia lantzen dihardue udal arduradunek, Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez. Martxoko udalbatzarrerako proposamen bat izan gura dute.

Gune urdinean eta egoiliarrentzat gordetako lekuetan eragingo du berrantolaketak —Tellituko

aparkalekuaz gain, Zubiarren eta Bidebarrietan ere badute lekua—. Baita orain arte libreak izan diren aparkalekuetan ere. Gaur egun, TAOk eragiten ez dien beste 300 lekutik gora daude aparkatzeko Ibarretxan eta Paduretán. Ez dute zehaztapenik eman, baina pentsatzekoa da leku horiek murriztuko direla TAOren berrantolaketagaz. Alkatearen berbetan, Tellituko egoiliarrentzako aparkalekuak herriko beste tokiren batean sartzeko “puzlea osatu” guran dihardute.

Bestalde, Aita San Migel plazaren inguruan aparkalekua egokitzeko aukerak ere aztertzen ari dira udal arduradunak, Belakortu ze-



Tellituko aparkalekuan 70-75 leku daude gordeta egoiliarrentzat.

**Aita San Migel plazaren inguruan aparkalekua egokitzeko aukerak ere ari dira aztertzen**

rrategia zegoen orubean. Gaur egun, San Migel jaietan barrakak jartzen dituzte bertan.

TAOren berrantolaketan martxo-ko udalbatzarrean onartuz gero, eta epeak betetzen badira, litekeena da ordenantza berria ekaineko indarrean egotea.

**Aparkalekua 2007tik**

Udalak 2007an egokitu zuen Tellituko lursaila aparkaleku lez. Orduan ere lotu zuen hitzarmena orubearen jabe den etxe eraikitzaileagaz. Bertan 17 etxebizitza eraiki eta 40 aparkaleku egokituko dira. Lanek 18-24 hilabete iraungo dute.



# ARGIZTATU ZURE sukaldea

MARTXOAREN 31 BAINO LEHEN

Zure Schmidt sukaldea

**6400 €**\*-tik aurrera

**SCHMIDT**  
Sukaldeak eta etxeko altzariak



Berrizko misiolariak Japonian. IGLESIA.INFO



Margarita Maria Lopez de Maturana misiolaria. IGLESIA.INFO

## Elvira Escudero Berrizko Mesedeetako misiolaria estatuko misiolari zaharrena da, 101 urte gaz

Escudero zaragozarra 1943an batu zen Berrizko Mesedeetara eta 1948an Japoniara joan zen misiolari

### BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

1943az geroztik Berrizko Mesedeetako komentuko misiolaria da Elvira Escudero zaragozarra, eta joan den astean 101 urte bete ditu. Bilboko Elizbarrutiak jakitera eman duenez, Escudero munduan zehar dabilen Espainiako misiolari zaharrena da.

1943an, 26 urte zituela, Elvira Escudero Berrizko Mesedeetako komentuan sartzea erabaki zuen. Komentura batu eta urte gutxira,

1948an hain zuzen ere, Japoniara misiolari joatea erabaki zuen, eta harrezkero han ari da misiolari lanetan Escudero.

Escudero orain 70 urte joan zen lehenengoz Asiara, eta han gerrak suntsitutako herrialde bat aurkitu zuela jakitera eman du Bilboko Elizbarrutiak.

Orduz geroztik, Berrizko Mesedeetako misiolaria Japoniako eskolatan gazteak hezten eta katekesia ematen ibili da.

### 31 urte gaz Escudero misiolari joan zen Asiara, eta orduz geroztik han dago

### Misioetarako institutua

1930era arte Berrizko komentua klausurakoa zen, baina harrezkero, Margarita Maria Lopez de Maturanari esker, misioetarako institutu bilakatu zen. Berrizko Mesedeeta-

ko Misolarien sortzailea 16 urte gaz bidali zuen Berrizko komentura bere amak, ahizpa bikiagaz batera, nautikako ikasle bat ahaztu zezan. Berrizko komentuan bokazioa zuela konturatu zen Margarita Maria Lopez de Maturana eta 19 urte gaz komentuan gelditzea erabaki zuen.

Lopez de Maturana bilbotarrak egindako lanari esker, 1930ean klausurako komentua misolarien institutu bilakatu zen eta, orduz geroztik, Berrizko Mesedeetako hain-

bat misiolari mundu guztian zehar dabilta. 1926an espedizio bat Txinara bidali zuten. 1927an Mariana eta Carolina irletara joan ziren, eta 1928an, Japoniara.

### 1930ean Berrizko klausurako komentua misioetarako institutu bilakatu zen

Misolari hauek, batez ere, ebanjelizazioan jardun zuten, aurrerago aipatutako herrialdeetako emakumeak hezten eta baita umezurtegi eta ambulatorioak sortzen ere.



ELVIRA ESCUDERO

### Misolariak munduan barrena

Gaur egun Berrizko Mesedeetako misolariak bost kontinenteetan daudela jakitera eman du Bilboko Elizbarrutiak. Esaterako, Japonian Berrizko Mesedeetako 90 bat misolari daude, Tokioko, Chigasakiko, Hiroshimako eta Hagioko hamabi elkartetan banatuta.

Horrez gain, Taiwanen, Mikronesian, AEBetan, Filipinetan, Erdialdeko Amerikan, Hego Amerikan, Afrikan eta Espainiako hainbat herritan daude Margarita Maria Lopez de Maturanak sortutako institutuko misolariak.

Bestalde, Margarita Maria Lopez de Maturanaren printzipioak, espiritualtasuna, helburuak eta lorpenak Berrizen azaltzeko asmoz, 2013az geroztik museo dute Mesedeetako komentuan.

## Munduko hondartza, mendi, desertu eta poloetatik ekarritako hareagaz erakusketa antolatu dute Hontzan

Erakusketa hiru ataletan banatu dute; Euskal Herriko hareak, estatukoak eta bost kontinenteetakoak

### MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Munduko Hareak deitzen da Hontza Museoak 2018/2019 denboraldirako prestatu duen erakusketa berria. Erosioaren eta bidaiarien

laguntzari esker antolatu dute. Lehenengoak munduko arrokak partikula txikietan higatu ditu milioika urtetan; bigarrenak, museo-ko lagun eta kolaboratzaileek, hare

hori poteetan sartu eta Mañarira ekarri dute.

Erakusketa hiru ataletan banatu dute. Batean Euskal Herriko hareak batu dituzte, beste batean Iberiar

penintsulakoak zein uharteetakoak, eta hirugarrenean bost kontinenteetan bildutakoak. Hondartza, mendi, desertu eta poloetatik ekarritako hareak daude ikusgai. Guztira, mundu osoko 170 bat lagin batu dituzte poteetan.

Kostaldeko arrokak, kareharrizko mendiak, gune bolkanikoak... inguru bakoitzeko hare multzoak kolore, tamaina eta nortasun propioa du. Koralek, oskoldunen oskolen eta molusku zatien deskonposiziotik eratorritako partikulak ere gehitzen zaizkie batzuetan.

Neguan martitzenetik barikura, 17:00etatik 19:00etara, egoten da zabalik museoa. Zapatuetan goizetan (11:00-13:00) zein arratsaldetan (17:00-19:00) irekitzen dute, eta domekan goizetan bakarrik.

### Aurrekontuak azaltzeko egindako batzarrak modu "positiboan" baloratu ditu udalak

### ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteon auzo batzarrak egin dituzte, Atxondon, 2018ko aurrekontuen berri emateko. Batzar hauen helburua herritarrei aurrekontuen berri eman eta atxondarrek beraien ekarpenak egitea izan da. Batzarretan, besteak beste, udalak zenbat diru duen azaldu diete eta diru hori zertan erabiliko duten.

Atxondoko Udaleko kideek jakitera eman dutenez, nahiz eta herritarren partaidetza handia izan ez, auzo batzarren balorazio "positiboa" egiten dute. Behin herritarrei aurrekontuak azalduta eta haien iritzia jaso eta, martxoan zehar aurrekontuak onartuko dituztela jakitera eman dute udal arduradunek.



Mundu osoan batutako hareak poteetan sartuta eta sailkatuta dute.



## Hareek denporak!

# IKASTOLAKO LANGILE OHIEI MEREZITAKO AITORTZA

Kurutziaga Ikastolako langile ohiek bost hamarkadatan egindako lanaren aitortza egin zuten atzo. Ekitaldian parte hartu zuten 65 omenduen artean, gehienak irakasle jubilatua ziren. Aitortza hori, gainera, Haur Hezkuntzako eraikin berrian egin zuten. Irakasle hauen sasoiaren ere, pedagogia aldetik aurrerazaleak ziren. Ikastarotara Bartzelonara joaten ziren gaur egun hain modan dagoen

Montesoriren metodoa ezagutzeko eta ikastolan praktikan jartzeko.

Argazkian ikastolaren sorreran lanean jardun zuten andereñoak agertzen dira. Hauek, eta baita ondoren etorri direnek ere, zentroaren proiektu pedagogikoa indartu dute, euskaratik mundura. Euren konpromisoari esker, milaka ikasle beraiek gidatutako eskoletan hazi dira. Merezi duzue. J.G.

## Sei hankako mahaia

Pilar Rios Ramos  
PSE-EE



### Martxoaren 8an, emakumeok greba egingo dugu

2017an, 70 herrialdeetan baino gehiagotan, emakumeek nazioarteko grebarako dei egin zuten, mundu osoan emakumeek jasaten dituzten era askotako indarkeria- eta despaketatun-moldeei aurre egiteko. Aurten, mugimendu feministak berriz egin du deia martxoaren 8an greba egiteko.

Indarkeria matxista eta sistema patriarkala salatzeaz gain, agerian jarri nahi da emakumeak geldituz gero herrialde osoa geldituko dela. Bestalde, bereziki nabarmendu nahi dira emakumeek dituzten zamak, eta alternatiba feminista sortu nahi da.

Ez da bakarrik laneko greba izango. Emakumeek funtsezko zereginak duten eremu guztietan eragin nahi da, esate baterako, zaintza-lanetan, kontsumoan eta ikasleen esparruan.

Deialdia ez da unitarioa; sindikatuek dei desberdinak egin dituzte. Besteak beste, txandaka 4 orduko deialdiak EAEn eta Nafarroan, 24 orduko greba, edota txandaka 2 orduko geldialdiak Estatuan nagusi diren sindikatuek deituta.

Argi dago greba nabarituko dela, Eusko Jaurlaritzak gutxieneko zerbitzuak jarriko baititu, greba guztietan bezala.

Nik, emakumea naizen aldetik, bat egingo dut grebarekin, eta ordezkari politikoa eta Durangoko Udaleko alkatordea naizen aldetik, dei egiten diet Durangoko emakume guztiei beste horrenbeste egin dezaten.

Era asko daude parte hartzeko. Esate baterako, laneko eta ikasleen geldialdiekin bat eginda, edo Durangon izango diren mobilizazioetara joanda. Hainbat ekintza izango dira, eta, azkenean, manifestazioa egingo da, 19:00etan Andra Maritik irtena.

Egun horretarako deitutako ekintzen bidez, emakumeek egiten duten lana nabarmen zehaztu eta emakumeek dituzten zama desberdinez hausnarketa piztea, batez ere etxeko eta zaintzako lanetan. Helburua bide zabaltzea da, gizartea bidezkoagoa izan dadin, eta zeregin horiek guztien ardura izan daitezkeen.

## Durangaldea asteen

### Otsailaren 12tik greba mugagabe daude Ur Artea enpresako langileak

**Abadiño |** ELA sindikatuak jakitera eman duenez, Abadiñon dagoen Ur Artea Fundizioko langileak greba mugagabe daude otsailaren 12tik. "Prekarietate" egoeran daudela salatu du ELAk: astelehenean domekara egunero 10 ordu baino gehiago lan egin eta gutxieneko lan osasun neurriak bete gabe. Horrez gainera, 2011tik langileei ez zaizkiela soldatak eguneratu diote, eta kaleratutako langileak berriro hartzeko eskatu dute ohar batean.

### Zelaieta Zentroko ikasgelan ordutegia zabaldu dute, oposaketak prestatzeko

**Zornotza |** Aurtengo oposaketen deialdia eginda dagoenez eta Osakidetza egindakora aurkeztuko direnen kopurua handia izango denez, Ametx Erakunde Autonomoak ikasgelaren ohiko ordutegia luzatzea erabaki du. Zapatuetan 16:00etatik 21:00era eta domeketan 17:00tik 20:00etara egongo da zabalik. Ordutegi berezi horretan Gazte Txokotik egongo da sarrera.

### 50. urteurreneko jaiaren harira, Ariñ-Ariñ dantza taldeak batzar batera deitu du

**Zornotza |** Ariñ-Ariñ dantza taldea orain 50 urte sortu zen, Zornotzako Berna auzoan. Urteurrenaren ospakizun jaia aurtengo irailaren 15ean egingo dute. Taldetik igaro diren partaide guztiekin dantza saioa egin gura dute. Gero, bazkaria eta erromeria izango dituzte. Martxoaren 10ean, 12:00etan, bilera bat egingo dute Bernako plazan, informazioa eta nondik norakoak emateko. Taldekoak izan diren guztiak gonbidatu dituzte batzarrera.

## Iritzia

### ELORRIOKO GOBERNU TALDEKO EMAKUMEOK ERE PLANTO!

Martxoaren 8an, Euskal Herriko Mugimendu Feministak eta hainbat eragile sozial, ekonomiko zein politikok bat egingo dugu "Emakumeak planto" aldarrikapenarekin. Zergatik?

- Eredu ekonomiko honek zapaltzen gaituelako:
- Europar emakumeok astero 26 orduz ordaindu gabeko lanak egiten ditugu (gizonak, berriz, bederatzia).
- Lanaldi bikoitzak/hirukoitzak gure gain, gizonak eta Estatuak ez direlako zaintzaz arduratzen.
- Hego Euskal Herrian gizonak baino %35,6 gutxiago kobratzen dugu.
- Lan prekarietate handiagoa jasaten dugu, pentsio baxuagoak, asko lan erregimen orokorretik kanpo gaude, lan eskubiderik gabe (etxe barruko langileak...).
- Jendartean 'amatasuna' goraiatzeko da; lan merkatuan, zigortu.
- Indarkeria matxistak jipoitzen gaituelako:
- Euskal Herrian eraillako emakume guztiak falta zaizkigu.
- Nazkatuta gaude kaleko jazarpenaz eta sexu erasoz, alor intimoko kontrolaz, xantaiaz eta zapalkuntza pairatzeaz...
- Kultura patriarkarrak baztertu, objektu bihurtu eta estereotipatzen gaituelako:
- Historia, Literatura eta Zientzia liburuetatik ezabatu gaituzte.
- Hedabideek, publizitateak eta sareak objektu sexualtzat gaituzte, kontsumituak izateko prest.

Greba eginez emakumeon egoera salatu eta sistema eraldatzen has-teko ordua dela aldarrikatuko dugu. Arrazoi asko daudelako, Elorrioko Udaleko gobernu taldeko emakumeok Emakumeen Nazioarteko Grebarekin bat egitea erabaki dugu. Emakumeak gelditzen bagara, mundua geldituko delako. Guk planto! Idoia Buruaga, Aratxu Uriarte eta Maitane Lopez (Elorrioko EH Bil-duko gobernu taldeko kideak)

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Bixente Kapanaga 9 - IURRETA · Izen-abizenak · telefona · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

Abadiño emteSPORT  
ZURE POLTSIKOARI BEGIRA!!  
PREZIOAK BEHEEEERA!  
LASTER BARRI GENIAGO ZURE INSTALAZIETAN  
ABADIÑO UDAL IGERILEKUAK  
ASTOLA, ZG - 48220  
ABADIÑO - BIZKAIA  
T. 94 620 29 29  
reception@personasabadiño.com  
@AbadiñoKiroldgia  
@AbadiñoKiroldgia

DIBA  
KOOPERATIBA  
Durangaldeko Baserritarren Elkarte  
Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

# Deskontu Sarea

Ez galdu bezero berriak lortzeko aukera

BERRIAren

## Deskontu Sarean

parte hartu nahi duzu?



Milaka lagunengana iritsiko zara!

Negozio bat baduzu, eskaini abantaila edo deskonturen bat, eta guk doako sustapen pertsonalizatua egingo dugu **BERRIA**lagunen komunitatean.

**Zure saltokian erosteko gonbita egingo diegu!**

## Nola parte hartu?

Jarri gurekin harremanetan gure bezero arretarekin

- 943-30 43 45
- [laguna@berria.eus](mailto:laguna@berria.eus)
- Txat bidez ([Berria.eus/berrialaguna](https://berria.eus/berrialaguna))



**berria**  
#BERRIAK15

# MAR TXOAK 8

TRATU TXARREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO  
ARRETA PSIKOLOGIKOA ETA ZERBITZU JURIDIKOA

946 200 492



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango



foru aldundia  
diputación foral

# “Grebak emakumeek normalean egiten ditugun lan ikusezin horien kargaz ohartzeko balio dezala gura dugu”

Martxoaren 8rako emakumeen grebara deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak, eta Durangaldean ere badabilta egun horretarako prestatzen



LEHIOR ELORRIAGA



## Martxoaren 8a ELORRIO

### EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

**OTSAILAN ETA MARTXOAN**  
ELORRIOKO IKASTETXEETAN gorputzasunaren inguruko lanketa, neska edota mutilen ohiko estereotipoetatik urruntzeko.

**MARTXOAK 5**  
**IRAKURKETA-GIDA:** “Gorputzak feminismoaren ikuspuntutik”  
Martxoan zehar, liburutegian dauden gai horrekin lotutako liburuak, filmak, erreferentziak ikusgai. Elorrioko Udal liburutegian

**MARTXOAK 6**  
**ERAKUSKETA:** “ENTRE FRIDAS Y CHAVELAS” Frida Kahlo eta Chavela Vargas emakume libreak izateaz gain, esparru artistikoan genero-rolak urratu zituzten. Erakusketa honetan euren obrara hurbilduko gara margo-lan batzuen bidez, akrilikoak batez ere. Egilea: Miriam Rodríguez Morá Iturri Kultur Etxean

**MARTXOAK 7**  
**19:00 HITZALDIA:** “EMAKUME ETA FEMINISTON PARTE HARTZE POLITIKOA: ZERGATIK GOAZ GREBARA?” Galdera asko erantzuten saiatuko gara solasaldi honetan: Zergatik planto egin behar? Zentzuk dira martxoaren 8ko grebaren erroinkak?... Hizlaria: Zuriñe Rodríguez/Hizkuntza: euskaraz Iturri Kultur Etxean

**MARTXOAK 8**  
**10:00** Elorrioko ikastetxeetan egindako lanaren erakusketa eta bideo-emanaldiak. Udaletxean.  
**12:00** KONTZENTRAZIOA: “Emakumeek\* planto!” Herriko plazan

**BAZKARIA:** ELORRIOKO ALARGUNEN ELKARTEAREN bazkideentzat  
**16:00** GOGOETA DIDAKTIKOA: “Mujeres intrépidas” Emakumeen ahalduzko prozesuak emakume ausarten ereduak behar dituzte, saio honetan horietako batzuen bizitzak ezagutuko ditugu. Hizkuntza: gaztelaniaz / Antolatzailea: Elorri Lore Emakume Elkarte Iturri Kultur Etxean  
**19:00** KONTZENTRAZIOA: GORA EMAKUMEEN BORROKA!!! Herriko Plazan.

**MARTXOAK 9**  
**BAZKARIA:** ELORRI LOREKO bazkideentzat  
**17:30** IPUIN-KONTALARIA: “Neure burua maite dut”  
Nori zuzendua: 7-10 urteko neska-mutilei eta beren gurasoei  
Narratzailea: Bego Alabazan  
Hizkuntza: euskaraz  
Elorrioko Udal liburutegian

**MARTXOAK 10**  
**8:30** EMAKUMEENTZAKO URKIOLARAKO MENDI MARTXA  
8:30ean irteera Herriko Plazan. Izena emateko: berdintasuna@elorrio.eus / 94 657 08 09 (Izena emateko azken eguna: martxoaren 6a)  
**10:00 (Berriz) - 13:30 (Elorrio)** FRENORIK EZ, Durangaldeko emakumeen bizikleta martxa Berriztik Elorriora. “Frenorik ez, sistema heteropatriarkal kapitalista TRANSformatzeko” Ondoren bazkaria eta jaialdia Elorrioko gaztetxean.

**ARRIOLA ANTZOKIAN:**  
**FILMEAK:**  
La vida y nada más: Martxoak 3,4 eta 5  
Alanis: Martxoak 10,11 eta 12  
Lady Bird: Martxoak 24, 25 eta 26  
**DANTZA:** “Now” Martxoak 9  
**ANTZERKIA:** “PAREJA ABIERTA” Martxoak 23

Inf. + : [www.elorrio.eus](http://www.elorrio.eus) / 94 657 08 09

#### DURANGALDEA • MARKELONAINDIA

**Martxoaren 8a greba eguna izango da lehenengoz Euskal Herrian, feministek eta sindikatuek mundu osoan egindako deialdiagaz bat egin dute eta. Besoko moreak jantzita, emakumeen aldarrikapenak kalerik kale zabalduko dituzte, lanuzteen eta mobilizazioen bidez. Greba antolatzeko, batzarrak egin dituzte herrietan, eta partaideetako batzuk dira Mireia Delgado Exposito (Durango, 1984), Itsaso Basauri Larrañaga (Elorrio, 1988) Leire Vargas Nieto (Durango, 2002), Ane Arbeo Sarriugarte (Durango, 1993) eta Ainhoa Aurtenetxe Alvarez (Zornotza, 1997).**

#### Nondik dator greba hau egiteko ideia? Zein da abiapuntua?

**Ainhoa:** Iaz izan zen nazioarteko lehen greba globala, nahiz eta lehenago ere beste herrialde batzuetan geldialdiak egon izan diren. Esango nuke, Argentinan egondako feminizidien ondoriozko geldialdiak eta mobilizazioak izan zirela honen pizgarri. Horren ostean, Emakumeen Grebarako Nazioarteko Plataforma sortu zen. **Zergatik uste duzue greba egiteko beharrez dagoela?**

**Mireia:** Hainbat gauza daudelako erreindikatzeke. Begira zelako egoeran gauden indarkeriagaz: formatu berrietan ere badator eta, batzuetan, era disimulatuan. Bestalde, eredu neoliberalak ez du batere laguntzen emakumeon bizi-baldintzetan. *Feminista* berba edo propaganda asko entzuten den arren, oraindik asko dago salatzeke. Planto egitea sinbolo bat da.

**Ainhoa:** Lan erreproduktiboak, soldatarik ez duten horiek, ikustaraztea garrantzitsua dela uste dugu.

Denonak behar luketen horiek emakumeek dauzkagu gure gain. Gainera, beste esparru batzuetan garatzeko mugatzen gaitu egoera horrek.

**Itsaso:** Eta greba oso formula bisuala da ezkutuko lan hori, bizi dugun eredu hori, desmuntatzeko. **Diskriminazio hori gehiago lotzen da aurreko belaunaldiekin. Zuek ere igartzen duzue?**

**Ane:** Akaso gazteok oraindik ez ditugu zaintza lan konkretu batzuk egiten, baina lan arloan horretara bideratzen gaituzte. Bestalde, lagun kuadriletan, militantzian eta taldeetan, orokorrean, besteak beste zaintzeko ardura hartzen dugu. Ama izateko presioa ere sartzen digute gaztetatik.

**Itsaso:** Nire ustez, gaur egungo belaunaldietan badator aldaketa lan banaketan, baina ez ardura banaketan. Oso desberdina da lan bat egitea eta hori egiteko ardura hartzea. Salto handia dago, errotik datorrelako.

**Mireia:** Iragarkietan proposatzen den eredu, adibidez, beti da dikotomia batez, irudi modernoagoa eman arren. Heteroaraua dago oinarrian rol horiek banatzerako orduan. Zer da familia bat eta zer ez?

“**Nire ustez, gaur egungo belaunaldietan badator aldaketa lan banaketan, baina ez ardura banaketan**”

#### Greba eredu berri bat dakar zue martxoaren 8rako, ezta?

**Itsaso:** Ez da betiko greba bat izango, lau dimentsio izango dituelako. Bata lanpostuetako greba da, soldaten arrakala eta lan banaketa salatzeke. Zaintza lanen esparruan ere egingo da, ardura horiek emakumeengan bizkarreratzen direlako, eta enplegu horretan dihardutenen baldintzak ere salatu gura ditugu. Kontsumo grebagaz, emakumea salmentarako objektu bilakatu dela ikustarazi gura dugu. Laugarrena ikasketen esparrua da, binomismoaren barruan hezten gaituztelako eta edukietan emakumeon presentzia falta delako. Horiek eta beste hainbat arrazoi daude.

#### Zergatik kontsumoari ere planto? Zer suposatuko du?

**Mireia:** Praka batzuk erosten dituzunean, emakume batek Indian 80 zentimogatik egindakoak erosi ahal dituzu, eta gainera, horregaz aberastuko dena gizon bat izango da. Janariagaz ere gauza bera gertatu ahal da: nondik dator? Nor zapaltzen da? Horregatik, ezer ez kontsumitzeko proposamena egingo dugu Durangon. Gainera, manifestazioak irauten duen bitartean mugikorra amatatzea eskatuko dugu.

#### Zelako esperientzia izaten ari da grebaren antolaketa?

**Leire:** Niretzat, pertsonalki, begiak zabaltzeko aukera bat izan da emakume hain desberdinak elkartu ahal izatea. Gauza asko ikasi ditut, eta ahizpatasun sentimendua indartzeko baliagarria izan da.

**Ainhoa:** Atzo bigarren batzarrak egin genuen, Zornotzan. Etorri zirene-

tako andre bi gugaz pankartak egiten egon ziren, eta harrigarria egin zitzaidan. Deigarria da horrelako gauza batera jendea zelan animatzen den ikustea. Herrian, behintzat, harrera ona eduki dugu.

“**Kontsumo grebagaz, emakumea salmentarako objektu bilakatu dela ikustarazi gura dugu**”

“**Pertsonalki, begiak zabaltzeko aukera bat izan da emakume hain desberdinak elkartu ahal izatea**”

**Itsaso:** Gure kasuan ere, antzera; aniztasuna aberasgarria da. Bestalde, hainbeste ñabardura daude, kosta egin zaigula aurrera egitea. Greba ulertzea bera izan da guretzat lehen pausoa.

**Mireia:** Oso pedagogikoa izaten ari dela uste dut. Greben inguruan ere gauzak birpentsatzeko aukera ematen digu.

**Zer ekintza prestatu dituzue greba egunerako?**

**Ane:** Durangon, gauerdian hasiko gara herria grebarako atontzen eta girotzen. Horma-irudi bat egingo dugu, adibidez. 09:30ean Andra Marian elkartu, bakoitzak etxetik eramandakoagaz gosalduta, eta informazioa banatzen hasiko gara. 11:30ean, lehen lanuzteagaz, Barandiarango nagusien etxetik jubilatuen egoitzara joango den giza kate bat egingo dugu. 13:00etan enplegu munduko zapalkuntzen inguruko mahai-ingurua egongo da. Gero, etxeko jatekoagaz bazkalduko dugu. 18:00etan bigarren lanuzteagaz batera, *performance* edo antzerki bat egingo dugu, eta 19:00etan, manifestazioa. Merkatariei ordu-bete horretan dendak zarratzeko eskatzen gabilta, eta euren jarraia ona eskertu gura dugu.

**Ainhoa:** Zornotzan elkarretaratze bat egingo dugu goizean, Urgozon. Arratsaldean, 18:00etan, propaganda zabalduko dugu, eta 18:30ean zumba tailerra hasiko da. 19:30ean askarian batu, eta 20:00etan berriro elkarretaratze batez amaituko dugu eguna, Urgozon.

**Itsaso:** Elorrioren, 11:00etatik 12:00etara informazio puntua jarriko dugu plazan. 12:00etan kazerolada hasiko da, eta 14:00etan,

bazkari autogestionatua. 18:00etatik 19:00etara *lasaigune* bat egongo da guztiok lasai berba egin edota jolasteko, adibidez. 19:00etan mobilizazio zabal bat egingo da, eta ostean, kazerolada.

**Ane:** Badakigu egun osoan plonto egitea gaitza izan ahal dela askorentzat, eta, horregatik, denentzat eskuragarria izan dadila gura dugu. Ezin baduzu zaintza greba egun osoan egin, une batean egin eta keinu bat izan dadila, adibidez. Bakoitzak ahal duenetik, denok parte hartzea gura dugu. Besoko moreak ere banatuko ditugu, eta horiek eramatea ere atxikimendua erakusteko modu bat izan ahal da.

**Gizonei zerbait eskatuko diezue egun horretarako?**

**Mireia:** Laguntzeko aholku gida bat osatu dugu grebara begira. Adibidez, zaintza lanez arduratzea eskatuko diegu, ondoan duen greba egin ahal izan dezan.

**Itsaso:** Greba defendatzeko modurik onena izango da egitura horiei eustea, emakumeok greba egin ahal izan dezagun.

**Ane:** Bai. Emakumeok normalean egiten ditugun lan ikusezin horien kargaz ohartzeko balio dezala, eurek ere ardurak hartzen hasteko.

**Ainhoa:** Eta, batez ere, trabarik ez jartzea eskatzen diegu.

## Berdintasun lekukoa emanez, korrika ibiliko dira Berrizen

IX. Añeketan 12:00etan hasiko da Berrizburun, eta herriko kaleetatik ibili ostean, Olakueta plazan amaituko da

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Berrizen dagoeneko ohitura bilakatu den Añeketan probaren bederatzigarren edizioa egingo dute martxoaren 11n. 12:00etan Berrizburun hasi eta herriko kaleetatik ibili ostean, Olakueta amaituko da lasterketa.

Aurten ere, Berrizko elkartearen ordezkariak eskuz esku eramango dute lasterketako lekukoa, eta elkarte bakoitzak berdintasunaren

inguruko esaldi bat sartuko du haren barruan. Ondoren, mural batean jarriko dituzte guztiak.

Horrez gain, aurreko urteetan lez, berdintasunaren alorrean lan egin duten elkarte bi edo pertsona bi sarituko dituzte.

Lasterketaz gain, martxoaren 8aren harira egitarau zabala antolatuko dute. Martxoaren 10ean, esaterako, Clara Peyak kontzertua eskainiko du.



Adin guztietako herritarrak batzen ditu Añeketanek.



Durangon emakume ugari egin dute grebarako deialdia.



Garbiketa sektoreko ELAko beharginen soldaten desberdintasuna salatzen eta greba babesteko dute.

# MARTXOAK 8 BERRIZ

**Martxoak 3, zapatua**

**12:15** IPUIN KONTALARIA  
*Maite Arrese-Yogipuinak*  
**20:00** ANTZERKIA  
*¡AHORA!*

**Martxoak 8, eguna**

**19:00** KONTZENTRAZIOA

**Martxoak 10, zapatua**

**20:00** KONTZERTUA  
*Kultur etxean. Clara Peya*

**Martxoak 11, domeka**

**12:00** IX. AÑEKETAN

**Martxoak 14, eguztena**

**19:30** FILM-DOKUMENTALA  
*Janis*

**Martxoak 17, zapatua**

**10:00 - 18:00** ILARGIAK  
IKASTAROA  
*Hilerokoaren zikloa. Gorputza eta mugimendua.*

**20:00** KONTZERTUA  
*Maria Arnal i Marcel Bagés*

**Martxoak 21, eguztena**

**19:30** FILM-DOKUMENTALA  
*Zinegoak*

**Martxoak 2tik 22ra**

ERAKUSKETA  
*Leticia Gaspar*



# Parte-hartzaile guztiak irabazle egiten dituen berdintasunaren aldeko Milia Morean korrika egitera deitu dituzte iurretarrak

Martxoaren 17an, Askondo kaletik abiatuko da berdintasunaren alde antolatu duten Milia Morea

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Martxoaren 8aren harira, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde milia bat korrika egitera deitu dute Iurretan: Milia Morea. Gu Be Bai Runners taldeagaz elkarlanean, udaleko Berdintasun Saileko arduradunek hirugarrenez antolatu dute herritar guztiei zabalduko lasterketa, eta erantzun zabalaz izatea gura dute. Horretarako, herriko elkarten parte-hartzea ere sustatu dute. Martxoaren 17an jarri dute hitzordua, 12:00etan.

Askondo kaletik irtengo da lasterketa. Bixente Kapanaga kalerako bidea hartuko dute korrikalariak gero, eta tunelaren gainetik buelta eman ostean, kale beretik, abiapuntura joango dira berriro. Azken zatia Zubiaurre kaletik egingo dute. Birritan egingo dute ibilbidea. Guztira, milia bat osatuko dute parte hartzera animatuko diren iurretarrak. Halaxe azaldu du Iraia Garcia korrikalariak. Emakumeek kirola egitea sustatu gura duen Gu Be Bai Runners taldearen sustatzailea ere

bada Garcia. Emakumeek zein gizonak, umek zein nagusiek, guztiak hartu dezakete parte lasterketan. "Horrela, emakumeek kirola egin dezaten ematen den laguntza eskertu gura dugu, nolabait. Izan ere, kirola egin gura duten emakume askok inguruko laguntza behar dute", adierazi du Garcia.

Iaz 70 bat korrikalari batu ziren, eta aurten jende gehiago batzea espero dute. Gu be Bai Runners taldeko kideak argitu duenez, "lehenengoz antolatu genuenean Durangoko Lilakrosaren egun berean egin

**Iaz 70 bat korrikalari batu zituen Milia Moreak, eta aurten jende gehiago batzea espero dute**

genuen, eta iaz Donostiako Lilatoia egin zen egunean. Aurten, beste lasterketaren bategaz ez kointziditza lortu dugu. Herri bakoitzak bere



Iaz Iurretan antolatutako Milia Moreak hainbat korrikalari batu zituen berdintasunaren alde.

unea izango du, eta, hartara, jende gehiago batzea lortu gura genuke".

### Aldarrikapenerako lasterketa

Aldarrikapenerako lasterketa dela gogoratu du Garcia, eta korrikalari guztiak direla irabazle, parte hartze hutsagatik. "Emakumeak eta

**Emakumeak eta gizonak arlo guztietan berdinarik garelako aldarrikatzea du helburu Milia Moreak**

gizonak arlo guztietan berdinarik garelako aldarrikatzea du helburu Milia Moreak. Era berean, kirola egitea sustatu gura du, kirola egiteak duen garrantzia barneratzea", esan du. Antolatzaileek arropa moreagaz jantzita korrika egitera animatu dituzte herritarrak.

## Martxoak 8 Iurreta

Ibarretxe Kultur Etxea

Otsailak 21 - Martxoak 12  
"MANIKI ERRONKA"  
LEHIAKETA

Martxoak 5

18:30 **Emakumeen literatur tailerra**  
ESCRITORAS ITALIANAS  
Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal (Skolastika)

Martxoak 6

18:30 **Emakumeak eta literatura**  
BERBALDIA "Encuentro con Miren Agur Meabe"  
Dinamizatzailea: Josune Muñoz (Skolastika)

Martxoak 7

10:00 **Irakurketa erraza "XI Kluba"**  
55 urtetik gorakoentzat  
ATEAK ZABALIK  
Dohainikoa. Aurretiaz izena eman

Martxoak 9

18:30 **GOXOAK AURKEZTEA**  
Izen ematea Martxoak 7rarte  
Herri epai-mahaia

19:00 **Adierazpen**

**instituzionalaren IRAKURKETA**  
Goxoen LEHIAKETA-DASTAKETA

Martxoak 10

**Agarreko jatetxea (Arriandi)**  
20:45 autobusa  
21:30 Afaria (Musikaz alaituriko dantza)Autobusa jarriko da / Leku kopuru mugatua / Izen ematea - txartelak salgai / Martxoak 7rarte

Martxoak 12

"MANIKI ERRONKA"  
LEHIAKETA BIDEO LEHIAKETA-  
Gaia: Berdintasuna

Bideoen iraupena: Gehienez 2 min

18:30 **Emakumeen literatur tailerra**  
ESCRITORAS ITALIANAS  
Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal (Skolastika) ATEAK ZABALIK  
Dohainikoa. Aurretiaz izena eman

Martxoak 13

**ZINE FORUM**

18:30 "The Lady In the Van"  
Dinamizatzailea: Eskarne Larrinaga

Martxoak 15

12:00 **SARI BANAKETA**  
"MANIKI ERRONKA" bideo erakusketa

Martxoak 16

19:00 **ANTZERKIA**  
"MONOLOKOS"  
Susana Soleto eta Javier Merino

Martxoak 17

12:00 **MILIA MOREA**

(Herri lasterketa Askondon hasita)  
BERDINTASUNAREN ALDE  
Herrigunetik zehar  
Dinamizatzailea: Iraia Garcia eta GU BE BAI RUNNERS

IZEN EMATEA ETA TXARTELAK:

**Ibarretxe Kultur Etxea**  
gizarte-ongizate@iurreta.eus  
94 621 53 72

**Goiuria Kultur Gunea**  
Anderebide emakume elkarte  
Ostegunetan 16:30etan  
anderebide@gmail.com  
616 490 506

## "Ahalduntze prozesuetan arteak lagundu dezakeen moduez hausnartu gura dut"

Mirian Rodriguez Morán artista asturiarraren 'Entre Fridas y Chavelas' erakusketa zabalduko dute martxoaren 6an, Elorrioko Iturri kultur etxean. Hitzaldia ere eskainiko du



**Mirian Rodriguez Morán**  
Pintorea  
Navia (Asturias) | 1983



# Amatasunak dakartzan esperientziak konpartitzeko asmoz, elkargune bat sortuko dute Abadiñoko emakumeek

Egitarau anitza osatu dute Abadiñon martxoaren 8aren harira; esaterako, emakume musulmanen elkarteak aurkezpena egingo du martxoaren 21ean

ABADIÑO • MARKEL ONAINDIA

Amatasuna etapa garrantzitsu bat da emakume askoren bizitzan, eza-gutu bako egoerak eragiten dituen eszenatoki berri bat. Esperientzia horiek norberak bere erara bizi dituen arren, sarri ondo etortzen da besteekin konpartitzea, tresnak eskuratu eta aholkuak trukatzeko, besteak beste. Asmo hori buruan, amatasunak dakartzan esperientziak partekatzeko elkargune bat sortuko dute Abadiñon. Martxoaren 14an jaioko da talde hori, Leire Etxezarragak dinamizatuko duen aurkezpen batean. 17:30ean, *Amazona: ¿Se puede ser madre y ser libre?* dokumentala eskainiko dute, eta proiektio horren ostean hasiko dira taldeaz berbetan, Txanportan.



Txanportan izango da amatasunari buruzko talde berriaren sorrera.

## Emakume musulmanak

Ez da hori izango martxoaren 8aren harira Abadiñon egingo den aurkezpen bakarra. Izan ere, Amalurraren izeneko emakume musulmanen elkarteak herritarren aurrean emango du bere berri. Martxoaren

## Martxoaren 14an jaioko da talde hori, Leire Etxezarragak dinamizatuta

21erako iragarri dute kulturartekotasuna lantzeko asmoz garatuko den ekitaldi hori.

Alde batetik, emakumeengan eragina duen islamofobiaz berba egingo dute, eta bestetik, emakume musulmanen estereotipoez ere

bai. Emakume horien ahalduntze prozesuez hausnartzeko aprobetxatuko dute, gainera.

## Jaietara begira

Bestalde, aipagarria da San Trokaz jaietara begira parekidetasun ikus-

pegi batetik lanean hasiko direla. *Zergatik berdintasun ikuspegia jaietan?* izenburupean, topaketa bat egingo dute martxoaren 19an. Maiatzean ospatuko diren jaietan emakumeen partaidetza sustatzea izango dute helburu horrela.

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

**'Entre Fridas y Chavelas' erakusketa zabalduko dute martxoaren 6ean, Elorrioren. Mirian Rodriguezek lehenengoz erakutsiko du bere lana Euskal Herrian eta oso pozik dago emandako aukeragaz. Ahalduz bitarteko oso ona da artea duela bi hilabete Abadiñon bizi den asturiarrentzat.**

## Zer ikusi daiteke erakusketan?

Azalpenezko proiektu dokumentala da *Entre Fridas y Chavelas*. 30 pinturek osatzen dute. Batez ere, hainbat formatu eta estilotan landutako akrilikoak dira. Gehienbat erretratuak. Testu laburrak era jasotutako galderak gehienbat, baina Frida Kalho eta Chavela Vargasen esaldiak ere badaude; baita artista bien testu interesgarri batzuk ere. Proiektuak ikus-entzunezko muntai bat eta musika ere batzen ditu.

## Zer islatu gura duzu?

Hausnarketarako, elkarrizketarako espazio bat izan gura du erakusketak. Sokak marratzen dituen puntu batean sortzen da, eta gorabeheradun soka horiek obra guztia lotuko dute. Obraren batasuna ez ezik, soke ibilbide, elkarriketa edo ikuspuntu posibleen sinbolo izan gura dute. Neure buruari egindako galdera batetik abiatzen da erakusketa: "Eta emakume artista handiak?" Pinturari lotuta, zaila egiten zitzaidan emaku-

me izenak aurkitzea. Gizonenak zetozkidan. *Entre Fridas y Chavelas* erakusketak aukera ematen du emakume artistek historian izandako lekuaz hausnarketa egiteko, beraien arteaz, beraien zailtasunez, hartutako jarreraz...

## Nola sortutako egitasmoa da?

Musika eta plastika fusionatzeko nuen interes batetik sortua da, esperientzia estetiko desberdin bat sortzeko nahi horretatik. 2015ean murgildu nintzen proiektuan. Orduan, berdintasunean hezteko zenbait proiektutan lan egiteko aukera ere izan nuen, eta artea eta ahalduntzea ikertzen hasi nintzen: nola lagundu dezakeen arteak emakumeen ahalduntze prozesuan, arlo pertsonalean zein kolektiboan, sozialean. Horrek hasierako proiektua eraldatu zuen.

## Kalho eta Vargas, genero rola apurtu zituzten andrak izan ziren biak.

Guztiz! Asko interesatzen zitzaidan Frida Kalho, ez bakarrik bere pinturagatik; egin zuen guztiagatik eta dekonstruitu zuen guztiagatik. Leku esanguratsua lortu zuen espazio artistikoan. Eta Chavela Vargas, nola ez! Gizonen moduan abestu, erre, edan.. zuena. Estereotipo guztiak apurtu zituen. **Hitzaldia ere eskainiko duzu erakusketari hasiera emateko. Zein izango da abiapuntua?**

Aurretik aipatutako galdera: "Eta emakume artista handiak?" Ha-

la ere, hitzaldi irekia izatea gura dut. Askotariko ikuspuntu edo ideiak sortzea. Frida Kalhogaz lotuta, artea eta gaixotasunaren gaitzeta izan daiteke, edo beste bat. Berdin Chavela Vargasegaz.

**"Erakusketak aukera ematen du emakume artistek historian izandako lekuaz hausnarketa egiteko"**

Emakume artistek azaleratzeko izan dituzten trabak aztertu gura nituzke; era berean, arteak gaur egun zeintzuk bitarteko eskaini ditzakeen azalaratzeko, ahalduntzeko. Ahalduntze prozesuetan arteak lagundu dezakeen moduez hausnartu gura dut, eta sortze prozesuak eskaintzen dituen bitartekoez ere bai.

## Isildu egin da andra artisten lana?

Bai, faktore pilo batek eraginda. Pinturan, esaterako, gogora datokidan gizonak erraz jardun dira horretan. Andrak, ez. Urrun joan gabe, XIX. mende hasieran zail zuten eskolaratzea, pintura ogibide lez hartzea... Gauzak aldatuz doaz, baina egitura zaharrek maneiatutako gizartean bizi gara, eta orain ere ez da erraza leku bat izatea.

## Martxoak 8 Abadiño emakumeen nazioarteko eguna



**MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA**  
Emakumeok Planto: Mugimendu Feministak deitutako lana, ikasketak, kontsumo eta zaintzen greba  
**MANIFESTAZIOAK**  
19:00 Durango (Santa Ana Plaza)  
20:00 Bilbo (Jesusen Bihotza)

**MARTXOAK 9 KALEJIRA DURANGOKO BATUKADA**  
18:30 Kiosko Plaza -19:30 Trañabarren kalea

**MARTXOAREN 5etik 31era XIII KARTEL LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO KARTELEN ERAKUSKETA**  
ERROTA KULTUR ETXEA

**MARTXOAK 11 LUR IKARA KABARET** (antzerki foroa)  
PANTZART ETA BIHOTZERRE ANTZERKI TALDEAK  
TRAÑA PLAZA, 13:00 (euria bada frontoian)

**MARTXOAK 14 AMATASUNAREN BIZIPENAK**  
-AMAZONA: ¿Se puede ser madre y ser libre? Dokumentala (Claire Weiskopf)  
-Amatasunaren bizipena partekatzeko taldearen aurkezpena (Leire Etxezarraga)  
TXANPORTA KULTUR ETXEA, 17:30

**MARTXOAK 15 ZINEGOAK HEDAPENA**  
BILBOKO GAYLESBOTRANS 15. NAZIOARTEKO ZINEMA ETA ARTE ESZENIKOEN JAIALDIA  
FIM LABUR SORTA BATEN PROIEKZIOA  
ERROTA KULTUR ETXEA, 18:00

**MARTXOAK 16 AIREZ BETERIKO IPUINAK**  
Umeentzako ipuin kontalaria  
TXANPORTA KULTUR ETXEA, 18:30

**MARTXOAK 19 ABADIÑO SAN TROKAZ JAIK BERDINTASUNAREN IKUSPEGITIK**  
ZERGATIK Berdintasun ikuspegia jaietan?  
TXANPORTA KULTUR ETXEA, 19:00

**MARTXOAK 21 EMAKUMEAK ETA KULTURARTEKOTASUNA**  
ABADIÑO "AMALURRA. MUJERES DE LA TIERRA"  
ELKARTEAREN AUZKEZPENAK  
ERROTA KULTUR ETXEA, 18:00

**MARTXOAK 23/24 AUTODEFENSA FEMINISTA**  
NESKA GAZTEENTZAT (14-18 urte)  
Martxoak 23, barikua (16:00-20:00) eta martxoak 24, zapatua (10:00-14:00)  
ERROTA KULTUR ETXEA

# “Kresala proiektuagaz obra klasikoak gaur egunera ekartzen saiatzen gara”

Martxoaren 8aren harira Zelaieta Zentroan antolatu duten kontzertuko partaideetako bat izango da Ane Ibarra

## ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Ane Ibarra (Zornotza, 1995) biolinista da eta Musiken burutu ditu musika ikasketak. Gaztea den arren hainbat proiektutan sartuta dago. Esaterako, martxoaren 8rako antolatu duten kontzertuko partaidea izango da Nora Lopez biolontxelistagaz eta Ostargi koruagaz batera.

## Zelakoa izango da Zornotzako kontzertua?

Nora Lopez biolontxelistagaz Kresala izeneko proiektua dut eta Zornotzan beragaz arituko naiz hasieran. Ondoren, pianista batez hirukotean eta Ostargi koruagaz batera joko dugu, besteak beste.

## Zein izango da erreperitorioa?

Norak eta biok biolinerako eta biolontxelorako eginda dauden pare bat obra klasiko joko ditugu, eta baita folk estiloko obra bat ere. Azken hori moldatu egin dugu, ukitu modernoagoa eman diogu. Azkenik, kanta herrikoiak joko ditugu.

## Hainbat proiektu dituzu esku artean.

Kresala eta Lur Laukotea. Biak Musiken ezagututako lagunekin



Musika klasikoetik aparte, jaza, rocka eta bestelako estiloak ere gustatzen zaizkio Zornotzako musikariari.

sortu dira. Lur Laukoteagaz Donostiako hamabostaldian jo dut, besteak beste. Mendelssohnen eta antzerakoen obrak jo ditugu. Kresalagaz obra klasikoak gaur egunera ekartzen saiatzen gara. Beti iruditu zaigu mundu honetan sartuta gaudenontzat musika klasiko oso

interesgarria dela, baina gainerakoek ez dutela ezagutzen. Mugak ezabatu gura ditugu. Horregatik, musika klasikoetik aparte beste estilo batzuk sortu eta sartu genituen gure programan, publikoarengana gerturatzeko eta beste era bateko esperientzia musikal bat eskaintze-

ko: rocka, folka... eta kantu herrikoiak, jakina. Euskaltzaleak gara.

## Zelako harrera jaso duzue publikoaren partetik?

Ona. Sabino Arana sariketan jotzeko aukera eskaini ziguten. Gure sentsazioa zen jendeak asko gozatu zuela. Irteeran esker on hori jaso ge-

nuen. Gure musikagaz gozatu zutela esan ziguten. Beraz, gu ere pozik. Prestigiosko orkestra bateko parte izatea futboleko Champions League irabaztea modukoa da?

Orkestretarako afizioa duen jendearentzat, bai. Londreseko BBCn, Alemaniako pare batean, Herbehereetakoan... Horietan aritzea goznera heltzea da.

## Zuri gustatuko litzaizuke?

Orkestra mundua asko gustatzen zait, baina beti ikusi izan dut nire burua irakaskuntzan. Umeei eta gazteei erakusten. Kontserbatorioetan eta musika eskoletan klaseak ematen nabiltzen gustura sentitzen naiz.

## Durangoko Mocker's taldearen disko berriko abesti batean parte hartu duzu. Zelako esperientzia izan da?

Lagun bati eta niri proposatu ziguten, eta pozarren hartu genuen parte. Disko itzela kaleratu dute eta guretzat ohorea izan da. Musika klasikoetik kanpora dauden estiloak beti gustatu izan zaizkit: rocka, jaza... Emaizagaz oso gustura geratu ginen.

## Tankera horretako zure lehenengo kolaborazioa izan da?

Aurretik jazz konpositore batzuekin kolaboratu nuen. Abestien orkestrazioa egiten nuen. Musikari denon arteko fusioa zen. Jimi Hendrixen *Little Wing* moduko abestiak grabatu genituen.

## MARTXOAREN 8an ZORNOTZA 2018

### EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

#### OTSAILAK 17

- 10:00etan **Neska gazteei zuzendutako tailerra**  
Gaztetxokoa: Autodefensa Feminista

#### MARTXOAK 3

- Goiz osoan zehar Zubiondo Parkean: **Emakume Artisanu eta Nekazarien Azokaren XXI. edizioa**
- 10:00 Postuak zabaldu
- 11:00 Txistulariak
- 11:30 Trikitilariak
- 12:00 Bertsolariak
- 12:30 Dantzariak
- 14:30 Postuak itxi

#### MARTXOAK 8

- **Elkarretaratzea eta adierazpen instituzionala irakurtzea**  
Herriko Plazan 13:00etan

- 19:30ean **Musika Zornotza Aretokoa**: Ane Ibarra (Amorebieta-Etxanoko biolin-jotzailea) eta Nora López (biolontxelista) + OSTARGI Korua + Some Rockers

#### MARTXOAK 10

- 12:00etan **ipuin kontalaria** Udal Liburutegian

#### HILABETE OSOAN ZEHAR KINE ZIKLOA

- **Martxoak 6:** Zikloaren aurkezpena irakurketa dramatizatuarekin Urgotxouren eskutik, "You Were Never Really Here", (Lynne Ramsay), 2017 filma eta solasaldia
- **Martxoak 13:** "En cuerpo y Alma" (Ildiko Enyedi) 2017. Hungaria, 116 min filma eta solasaldia
- **Martxoak 20:** "Recuerdos de Fukushima" (Doris Dörrie) 2017 Alemania (108 min) filma, solasaldia, zikloaren amaiera eta luntxa

## Martxoaren 8a ospatzeko asmoz, emakume 'trans-bollerentzat' bizikleta martxa antolatu dute

Datorren zapatuan, martxoak 10, Zaldibarren hasi eta Elorrion amaituko da VI. Bizikleta Martxa Feminista



Joan zen egunean feministak pintxo-potean ibili ziren Elorrion.

### DURANGALDEA • M.Z.

Hilaren 10ean, Zaldibarren hasi eta Elorrion amaituko da Durangaldeko emakume 'trans-bollerentzako' VI. Bizikleta Martxa Feminista. Aurten ibilbide desberdina izango du. Zaldibarretik irten ostean, Berriztik Matienara joango dira, eta handik Iurretara, Durangora eta Abadiñora. Atxondotik pasatu eta gero, Elorrion bukatuko dute.

Ondoren, Elorrioko Gaztetxean bazkaltzeko batuko dira. Bazkariaren ostean, Drum Kopters eta Garbiketa Txanda taldeek kontzertuak joko dituzte. Horrez gain, "giro ona" eta musika ziurtatuta daudela jakitera eman dute.

Bestalde, ekimen honen helburuak eskualdeko ahalik eta emakume feministarik gehien batzea, elkar ezagutzea eta plazererako espazio bat izatea dira. Era berean, martxoaren 8a ospatzea emakumeen

### **Bizikleta martxaren ostean, Elorrioko Gaztetxean batuko dira bazkaltzeko**

meek espazio publikoa okupatzea, bizikleta martxa finkatzea, ahaldundun izatea eta ekimena modu autogestionatuan aurrera eramatea dela nabarmendu dute.



Helmuga elkarteko kideetako batzuk.

## Helmugak urte osoan egiten duen lana gogoratuko du erakusketa batek

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, martxo osorako egitaraua prestatu dute Zaldibarren; Helmuga elkarteak urteko lana borobilduko du egitarau honetan

### ZALDIBAR • A.M.

Helmuga elkarteko kideak Emakumeen Nazioarteko Eguneko protagonistetako batzuk izango dira. Urte osoan emakumeei zuzendutako ekintzak antolatzen ditu Helmugak, eta ekimen bereziak prestatu dituzte martxoko egitaraurako. Alde batetik, elkarteak egindako lanekin erakusketa bat egingo dute Liburutegi zaharrean; martxoaren 10ean eta 11an egongo da ikusgai. Bestalde, hilaren 22rako irteera antolatu dute.

Egun, 70 bazkide inguru ditu Helmugak. Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen dituzte, eta arrakastatsuenak irteera eta pintura eta bolillo tailerrak izaten dira.

Beraien ekimenak finantzatzeko, San Andresetan tortillak egiten dituzte, adibidez.

Bestelako ekimenak ere antolatu dituzte martxoko plantoak indartu eta kontzientzietan eragiteko. Horrela, martxoaren 10ean afaria eta dantzaldia egingo dituzte Olazarren. Txartelak aurretik hartu beharko dira Olga, Sorgin, Karobi eta Casteten. Emakumeen ahaldundunze ikastaroa ere egongo da. Tupper sex feminista jorratuko dute bertan. Martxoaren 14an eta 20an izango dira bi saioak. 18:00etan hasi eta 20:00etara.

**Ikus-entzunezkoen indarra**  
Egitarauan ikus-entzunezko la-

nek garrantzi berezia izango dute. Bi ikus-entzunezko egongo dira aurtengoan ikusgai. Martxoaren 6an, *Nosotras, mujeres de Euskalduna* dokumentalak emango dio hasiera martxoko egitarauari.

Eta martxoaren 19an, Maite Maiorak *Mendian korrikan eta am-*

### **Martxoaren 15ean, Izare poesia akustikoaren kontzertua egongo da Udaletxeko plazan**

*tsetan* ikus-entzunezkoa eskainiko du; ostean, berbaldia ere egongo da. Maiora munduko atletarik onenetakoa da. Bestalde, martxoaren 15ean kontzertua egongo da. Izare poesia akustikoaren emanaldia egongo da.

MAR  
TXO  
AK  
2018  
MARZO

EMAKUME LANGILEON  
NAZIOARTEKO EGUNA  
DÍA INTERNACIONAL DE LA  
MUJER TRABAJADORA



### Martxoak 6

19:00 DOKUMENTALA  
"Nosotras mujeres de Euskalduna"  
Liburutegian

### Martxoak 8

EMAKUME LANGILEON  
NAZIOARTEKO EGUNA.

### GREBA FEMINISTA

EMAKUMEOK\* PLANTO

12:00 Mobilizazioa Euskal Herria kalean

19:00 Mobilizazioa Euskal Herria kalean

### Martxoak 10

21:00 AFARIA ETA DANTZALDIA.

Olazarren. Tikitak 15 eurotan salgai Olga, Sorgin, Karobi eta Castet-en.

Azken eguna: martxoak 8, eguna.

### Martxoak 10 -Martxoak 11

Helmuga elkarteak egindako lanen erakusketa.

### ERAKUSKETA

Zapatuan: 11:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00

Domeka: 11:00 - 14:00

Liburutegi Zaharrean.

### Martxoak 14 - Martxoak 20

18:00-20:00 EMAKUMEEN AHALDUNTZE IKASTAROA: TUPPER SEX FEMINISTA.

Liburutegi Zaharrean.

### Martxoak 15

19:00 KONTZERTUA: Izare Poesia Akustikoa. Udaletxeko plazan

### Martxoak 19

HITZALDIA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA

18:00-20:00 MAITE MAIORA

Mendian korrikan eta ametsetan. Liburutegi zaharrean.

### Martxoak 22

IRTEERA

Helmuga emakume elkarteak antolatua.

Amaitzeko



# Yo, Daniel Blake

ZINE-FORUMA  
DURANGO :: MARTXOAK 7

## Krisi ekonomikoaren ondorioak azalean bizi dituen gizona

Plateruena kafe antzokiak zinea eta politika elkartzen dituen berbaldi zikloa hasi du, eta datorren eguaztenean *Yo, Daniel Blake* (Ken Loach, Erre-suma Batua, 2016) pelikulaz jardungo dute, 19:30ean.

Proiektzioarako eta berbaldirako tartea edukitzeko, ez dute filma osorik emango, irudi edo eszena esanguratsuenak baizik. Eguazte-

neko gonbidatuak Helena Franco EHUko irakaslea eta Xabier Landabidea Deustuko Unibertsitateko irakaslea izango dira.

Krisi ekonomikoaren ondorioak azalean bizitzen ari da Daniel Blake; osasun arazoengatik lan egin ezin duen arren, administrazioak ez dio laguntza eman gura.



## Neska gazte feministak Durangon elkartuko dira

**TOPAKETA** | Martxoaren 8a bertan da, eta herririk herri makina bat inizatiba prestatzen dabilza emakumeen nazioarteko egun hori ospatzeko eta aldarrikapenak lantzeko. Baina mugimendu feministek ez dute etenik urte

osoan, eta biharko beste ekimen bat iragarri dute: Biribilketa Feminista. Durangaldeko neska gazteen topaketa izango da, Sorginola gaztetxean garatuko dena. Goizean hausnarketa egingo dute. Bazkaldu ostean, greba fe-

ministaz eta udaleku feministez informatuko dute. Gero, jolasen eta eskulanean tartea edukiko dute.

### Udaleku feministetatik

Iaz lehenengoz burutu zituzten Euskal Herriko udaleku feministak, eta bertan egon ziren eskualdeko neska batzuek antolatu dute biharko jardunaldia, han bizitakoari segida eman guran.

### Martxoaren 2an

**IURRETA antzerkia**  
"Kalean otso etxean uso" antzezlan, 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

**DURANGO berbaldia**  
"¿Qué está pasando con las pensiones?" hitzaldia Miren Etxezarreta katedradunaren eskutik, 19:00etan, Jesuitak ikastetxeko Arrupe aretoan.

**DURANGO musika**  
Anariren eta Liberen kontzertua, 22:00etan, Plateruenean.

**BERRIZ musika**  
Ikarass eta La Casa Fantom taldeen kontzertua, 22:00etan, gaztetxean.

### Martxoaren 3an

**DURANGO jolasak**  
"Birziklatze tailerra" familian jolasteko beste modu bat, 11:30ean, Plateruenean.

**DURANGO deialdia**  
'Biribilketa' Durangaldeko neska gazteen topaketa feminista, Sorginolan.

**BERRIZ antzerkia**  
Maite Guevararen '¡Ahora!', 20:00etan, Kultur Etxean.

**DURANGO musika**  
'Hardcore gaua' Drop! eta Stronger Together taldeekin, 22:00etan, Sorginolan.

**ABADIÑO antzerkia**  
'Travesías' antzezlan La TEAdETRO taldearen eskutik, 20:00etan, Errota kultur etxean.

### Martxoaren 4an

**DURANGO antzerkia**  
'Lyceum club' antzezlan, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

### Martxoaren 6an

**ZALDIBAR deialdia**  
"Gaztetxeak 14 urte" mural margoketa eta luntxa, 18:00etan, gaztetxean.

**IURRETA solasaldia**  
Skolastikako Josune Muñozek Miren Agur Meabe elkarrizketatuko du, 18:30ean, herri bibliotekan.



ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



## Minor Empires talde madrildarra Elorriora dator

**MUSIKA** | Elorrioko gaztetxeko programazio musikalak ez du etenik, eta biharko, martxoak 3, beste talde biren zuzenekoak antolatu dituzte. Minor Empires madrildarrak etorriko dira, eta euegaz batera Nerabe talde donostiarrak ere joko du. Minor

Empires rock taldeak estatu osoan zehar egingo du bira udaberri honetan, eta Elorrio ere aukeratu du egutegian.

Nerabe talde berria da, iaz sortutakoa. Aurretik beste talde batzuetan ibilitako musikariek osatzen dute.

### Martxoaren 7an

**ZALDIBAR euskaraldia**  
Euskaraldiaren bigarren saioa, 18:30ean, udaletxeko pleno aretoan.

### Martxoaren 9an

**ELORRIO ipuin kontaketa**  
"Neure burua maite dut"  
Bego Alabazanen eskutik (7-10 urte bitarteko umeentzat eta beraien gurasoentzat), 17:30ean, udal liburutegian.

**DURANGO tailerra**  
"Telebistako fikzioaren lengoaia" Marc Ambiten eskutik, 18:30-20:30 bitartean, Bizenta Mogel bibliotekan.

**ELORRIO dantza**  
"NOW" Lasala konpainiaren eskutik, 20:30ean, Arriolan.

**DURANGO lehiaketa**  
"Pub Quiz" lehiaketa, 21:30ean, Plateruenean.

**ZALDIBAR antzerkia**  
"Adarretatik zintzilik" antzezlan, 22:30ean, gaztetxean.

### Martxoaren 10ean

**DURANGO tailerra**  
"Telebistako fikzioaren lengoaia" Marc Ambiten eskutik, 11:00-13:00 bitartean, Bizenta Mogel bibliotekan.

**DURANGO jolasak**  
"Esperimentazioa" familian jolasteko beste modu bat, 11:30ean, Plateruenean.

**BERRIZ musika**  
"Oceanes" Clara Peyaren kontzertua, 20:00etan, Kultur Etxean.

**DURANGO lehiaketa**  
"Esto no es Rock Radikal Vasco" gorazarre festa; Picadura (Barricada), Pakean Utzi Arte (Hertzainak) eta Zona Especial Norte (RIP), 21:30ean, Plateruenean.

**ZALDIBAR musika**  
Mocker's eta Sermond's taldeen kontzertua, 22:00etan, gaztetxean.

### Martxoaren 11n

**DURANGO antzerkia**  
"Alizia Lurralde Miresgarrian", 12:30ean eta 18:30ean, San Agustin kulturunean.

**DURANGO musika**  
Biren taldearen kontzertua, 13:00etan, Plateruenean.

### Martxoaren 12an

**BERRIZ dastaketa**  
Arabako Errioxako ardoa, Eusko Label olibaren eta Idiazabal gaztaren dastatzea, 19:00etan, Kultur Etxean (izena eman behar da).

### Martxoan zehar

**DURANGO tailerra**  
"Adineko pertsonentzako tailer psikosoziala Aramotz auzoan, martitzen eta eguenetan, 10:00etatik 11:30era, Sasikoa 34. helbidean.

### Martxoaren 2tik 11ra

**DURANGO erakusketa**  
Durangaldeko artisten elkarteko kideen erakusketa, Ezkurdiko udal aretoan.

### Martxoaren 16tik 25era

**DURANGO erakusketa**  
Kurutziaiga elkarteko kideen erakusketa, Ezkurdiko udal aretoan.

## Martxoko agenda



**2** "KULTUR SAILA-ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA" 17:00 Haurrentzako antzerkia "Kalean otso etxean uso" (Patata tropikala) 18:00 Haurrentzako igelezko ipuin kontalaria Iurretako Emakumeen Bira Z.K.E. 18:30 Emakume talde ziklisten aurkezpen ofiziala

**5** "GIZARTE ONGIZATEA" 11:30 Gazteentzako saioak "EMAKUMEAK" "IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" Paperezko hegoak: haurrentzako irakurketa kluba 17:00 LH 3. Maila 18:00 LH 4. Maila 18:30 Emakumeen literatur tailerra (Ateak zabalik) "Escritoras italianas" Anderebide Emakumeen Elkarte 19:00 Zoru pelbiko kurtsoa

**6** "GIZARTE ONGIZATEA-IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 18:30 Berbaldia: "Encuentro con Miren Agur Meabe"

**7** "GIZARTE ONGIZATE-IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 10:00 Nagusientzako XL irakurketa kluba Anderebide Emakumeen Elkarte 16:30 Gizarte gaitasunen tailerra

**8** "EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA"

### Otsailaren 7tik maiatzaren 30era

**BERRIZ ikastaroa**  
Emakumeen jabekuntza eskolaren baitan, Mindfulness ikastaroa, 12 urtetik gorako emakume berriztarrentzat, eguaztenetan 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

### Otsailaren 9tik martxoaren 9ra

**ABADIÑO ikastaroa**  
Autodefentsa feminista, barikuetan, 17:00-20:00 bitartean, Txanporta kultur etxean.

### Martxoaren 2tik martxoaren 23ra

**BERRIZ erakusketa**  
Leticia Gaspar, Kultur Etxean.

### Martxoaren 5etik martxoaren 13ra

**BERRIZ ikastaroa**  
'Zure Android gailua erabiltzen hasi', 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

### Martxoaren 14an eta 15ean

**BERRIZ ikastaroa**  
'Smartphonen berehalako mezularitza', 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

## Zinema

### :: Berriz KULTUR ETXEA

Tres anuncios en las afueras

barikua 2: 22:00  
domeka 4: 19:00

### :: Durango ZUGAZA

• Errementari

barikua 2: 19:30/22:00  
zapateria 3: 18:30/20:30/22:30  
domeka 4: 18:30/20:30  
astelehena 5: 18:30/21:00  
martitzena 6: 21:00  
eguaztena 7: 20:00

• Sin Rodeos

barikua 2: 19:30/22:00  
zapateria 3: 18:30/20:30/22:30  
domeka 4: 18:30/20:30  
astelehena 5: 18:30/21:00  
martitzena 6: 19:00  
eguaztena 7: 20:00

• Gorrión Rojo

barikua 2: 19:30/22:00  
zapateria 3: 16:30/19:30/22:30  
domeka 4: 17:45/20:30  
astelehena 5: 18:30/21:00  
martitzena 6: 20:00  
eguaztena 7: 20:00

• El hijo de Bigfoot

(euskaraz)

zapateria 3: 16:30  
domeka 4: 16:30

### :: Elorrio ARRIOLA

• La vida y nada más

zapateria 3: 22:00  
domeka 4: 20:00  
astelehena 5: 20:00  
domeka 4: 17:00

### :: Zornotza ARETOA

• Errementari

barikua 2: 20:15  
zapateria 3: 19:30/22:00  
domeka 4: 20:00  
astelehena 5: 20:15

• Una familia feliz

zapateria 3: 17:00  
domeka 4: 17:00

# “Orokorrean, jende aurrean pintxatu izan dudanean, esperientzia ona izan da”

Jkin Alonsok “Blood, Sweat and Tears” EPa kaleratu du Bedroom Deep-gaz; doinu elektronikoak jorratzen ditu bertan



**Jkin Alonso**  
Musikaria

**Elorrio | 1989**

Jkin Alonso ezizenagaz dabil DJ munduan elorriarra.

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

**Denetarikoa estiloak jorratu ostean, doinu elektronikoak nagusi dituen EP bat kaleratu du, berriki, Jkin Alonso izen artistikoaren atzean dagoen Jokin Alonsok. Elorrioko bandatik, Namek Planet eta Ayatollahko doinu rockeroetara, eta orain, elektronikoetara egin du jauzia.**

**Nondik datorkizu elektronikarako zaletasuna?**

Betidantik rock edo metal doinuak izan ditut gustuko, baina musika elektroniko entzutean konturatu

nintzen horrelako soinuak nik sorturikoekin nahastu ahal nituela. Pintxatzeko platoak eta mahai bat lortu eta abestiak jartzeko moduak esploratzen hasi nintzen.

**Aurretik, formakuntza klasikoa jasotakoa zara.**

Elorrioko musika eskolan hasi nuen formakuntza klasikoa, ia haur bat nintzela. Klarinete eta solfeo eskolak hartu nituen, batez ere. Bertako prestaketari esker, koralean sartu nintzen, baina gogorregia egin zitzaidan DBHko ikasketekin uztartzea.

**Jaso duzu formakuntzarik doinu elektronikoetarako?**

Nire kabuz hasi nintzen musika

elektronikoa ekoizten. Hasiara batean, Bartzelonara joatea nuen buruan, baina lagun batek Madrilgo Carlos Koschitzkyrengana jotzea

**“Egun Namek Planet eta Ayatollah geldi daude, eta proiektu honetan nabil lanean buru-belarri”**

gomendatu zidan, eta hara joan nintzen egun batzuk igarotzera. Ostean, Berlinen ikastaro bat egin nuen eta han ere asko ikasi nuen; eta, gainera, bertako musika esze-

na bereziaz disfrutatu nuen. Orain ez dut buruan inora joaterik; internetetik, liburuetatik eta lagunengandik ikasten jarraitzen nabil.

**Naturala egin zaizu klasikotik rockerako eta elektronikorako bidea? Zein fasetan daude Namek Planet eta Ayatollah?**

Bide hauetan murgildu izana oso positiboa izan da, bai pertsonalki eta baita musikalki ere. Mundu horiek ekarpen handia egin didate; ondo egindakoetatik eta hanka-sartzeetatik ikasi dut. Egun Namek Planet eta Ayatollah geldi daude, eta nirean nabil buru-belarri.

**Zuzenekoak prestatzen ari zara, ezta? Bi zuzeneko mota ezberdin pres-**

tatzen ari naiz. Batetik, DJ saioak; hau da, hainbat abestiren nahasketan oinarritzen den zuzeneko luzea. Bestetik, ordenagailuagaz eta soinu mahaiagaz, gitarra elektrikoagaz eta beste gailu batzuekin prestatzen ari naizen zuzeneko laburragoa.

**Zer nahiago duzu, zuzenean pintxatu ala estudioan edo etxean aritu?**

Orokorrean, jende aurrean pintxatu dudanean, esperientzia oso onak

**“Madrilen Carlos Koschitzkyrekin egon nintzen egun batzuk, eta Berlinen ere egin nuen ikastaro bat”**

izan dira, eta etengabe ikasten ari naiz. Musika jartzean asko disfrutatzen dut, izan niretzat edo izan besteentzat. Etxean edo lokalean pintxatzean, teknika eta nahasketa berriak praktikatzen ditut. Etxetik kanpo gutxiago inprobisatzen dut. Hala ere, jendearen berotasunak asko laguntzen du.

**“Gaztetxeetan gehiago entzuten dira punk doinuak, baina musika elektronikoa gora doa horrelakoetan ere”**

**Gaztetxeetan sarri egon zara pintxatzen. Badago zaletasunik doinu elektronikoetarako?**

Itzela da gaztetxeek aurrera daramaten eredu alternatiboa; eskertzekoa da horrelako tokietako elkarlana, nire kasuan jotzeko, disfrutatze eta ikasteko aukera izan dut eta. Musikari dagokionez, musika elektronikoa abiadura handiko abesti erreplikakorrek lotzen du jende askok, baina hori genero bakarra da elektronikaren baitan. Orokorrean, gaztetxeetan gehiago entzuten dira metal, punk edo Oi! doinuak, baina gero eta musika elektroniko gehiago entzuten ari da gure inguruan.

## ‘Blood, Sweat and Tears’ Bedroom Deep diskoetxeagaz publikatu du

*Blood, Sweat and Tears* laneko abestiak Bedroom Deep diskoetxeagaz publikatu ditu Jkin Alonsok. Sortzailearen berbetan, Joy singleak erritmoa eta melodia uztartzen ditu, 124 BPMtan. “Ez ditut abestiak estilo bakarrean etiketatzen, baina kasu ho-

netan horrela definituko nituzke”, azaldu du Alonsok. EPa osatzen dituen abes-

**Nazioarteko artista asko entzun arren, Alonsok bertako Piek eta El\_Txef\_A nabarmendu ditu**

tiak ekoiztu eta gero, Carlos Kochitzkyk masterizatu zituen. “Ez dut nire estiloa horretara mugatuko; izan ere, etorkizunean beste motatako abestiak egingo ditut”, gaineratu du. Ostean, zenbait diskoetxetara bidali eta gero, Bedroom diskoetxeagaz digitalki publikatzeko aukera irten zitzaion elorriarrari. Orain, *beatport.com* webgunean deskargatzeko aukera ere badago.

Inspiratzeko orduan, ia egunero musika ezberdina

kontsumitzen dabil Jkin Alonso. “Ia egunero talde berrien musika entzuten nabil, sortutako playlist-etatik, irrastian edo podcastetan, hainbat diskoetxeetakoak. Nazioarteko artistek ez ezik, bertakoek ere eragiten diote Alonsori. Adibide legez, Piek eta El\_Txef\_A aipatu ditu, bakar batzuk aukeratzea ia ezinezkoa egiten zaiola onartzen duen arren. “Gertu artista erraldoiak ditugu!”, nabarmendu du elorriarrak.



## “Nolatan ez dugu Pilar Zubiaurreren berri eta bai bere senarrarena?”

Domekan, 20:00etan, Maria Goirizelaiak idatzitako Lyceum Club antzezlanaren egongo da Durangoko San Agustín kulturgunean; martxoaren 9an, Zornotza aretoan egongo da ikusgai



Nagore Gonzalez, Olatz Ganboa, Getari Etxegarai eta Ane Pikaza.

### ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Lyceum kluba Madrilan sortu zen, 1926an, eta Espainiako lehenbiziko espazio feminista izan zen. Klub horretako kideak ziren Carmen Baroja, Zenobia Camprubi, Maria Maeztu eta Pilar Zubiaurre garaitarra; Lyceum Club obrarako,

**Lyceum Club antzezlanaren Maria Goirizelaiak idatzi du; bertako kide ziren lau emakume elkartzaren ditu**

emakume hauen azalean sartu dira Nagore Gonzalez, Olatz Ganboa, Getari Etxegarai eta Ane Pikaza. Azken honegatik egin du berba ANBOTOK.

Pilar Zubiaurre garaitarraren azalean sartu zara. Zer sentitu duzu? Laurak oso emakume potenteak

ziren. Eta Zubiaurre oso pertsonaia interesgarria iruditu zitzaizkidan ezagutu nuenean. Oso modernoak ziren laurak, ideia oso aurrerakoiak zituzten beraien garairako. Hor konturatu nintzen, baita ere, historia eten egin zela garai horretan.

Lau lagun hauek zuten maila ez zen nolana hainkoa, ez ziren edozein pertsona, hori ere egia da. Baliabide ekonomikoak zituzten, eta Zubiaurrek musika ikasketak

dira, garaiko abesti errepublikar bat, eta batek “Gu ez gaude trintxeretan, baina beno”, dio; Zubiaurrek “Hainbeste trintxera mota daude!” erantzuten dio.

### Nolako obra da?

Obra gaur egungoa da. Erdi fikzioa erdi errealitate. Lau emakume hauek Lyceum klubeko kideak ziren, bertatik igaro ziren, baina ez elkarregaz. Obraren, elkarregaz jarri ditu Mariak [Goirizelaiak]. Emakumeek beraien espazioak eskatzen dituzte obraren, eta horrelako emakumeen kasuak ezagutzera eman behar dira. Zergatik ezagutzen ditugu beraien senarrak, eta ez beraiek? Nolatan? Lanean jarraitu behar da joera hori aldatzeko. Ni obra amaieran emozionatu egiten naiz, pertsonaia hauek existitu egin zirelako. Zubiaurreren nebak ezagutzen ditugu, pintore ezagunak zirelako; Zubiaurreren gizona ezagutzen dugu, arte kritikaria zelako. Baina Pilar Zubiaurre bera ez, eta hori aldatu egin behar da. Bidaia polita izan da pertsonaia honen azalean sartzea.

### Gustura eginiko ekarpenagaz?

Oso gustura nago egindako lanagaz, eta lan polita dela iruditzen zait. Mariak oso lan ona egin du obra hau idatzita, eta emakume hauei ahotsa emanda. Izan dadila hau emakume gehiagoren istorioak ezagutzera emateko aukera.

**“Pentsamendu irekia zuten, legea aldatu gura zuten, eta gerragaz eten egin zen hori”**

**Martxoaren 9an, Zornotza aretoan egongo da obra hau ikusgai, 20:15ean**

zitzen, hizkuntzak zekizkien. Pentsatzeko modu oso irekia zuten. Pentsamendu berriak irekitzeko, legeak aldatzeko... egiten zuten lan, leku ezberdinetatik. Hori guztia geratu egin zen altxamenduagaz eta gerragaz. Antzezlanean, badago pasarte bat bereziki gustatzen zaidana. Emakumeak abesten hasten

## “Gaurkoa gure 666. kontzertua izango da, eta zerbait bereziki zaratatsua prestatu dugu”

La Casa Fantom norvegiarrek Berrizko Hiltegixen hasiko dute 2018ko bira; bikoteak doinu ilunak jorratzen ditu

### MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Zarata eta doinu pisutsuak nagusituko dira gaur Berrizko Hiltegixen. La Casa Fantom norvegiarrek bertan hasiko dute 2018ko bira; hamasei egunetan beste horrenbeste kontzertu eskainiko dituzte. “Gaurkoa gure 666. kontzertua izango da, beraz, zerbait iluna eta bereziki zaratatsua egingo dugu”, adierazi dute. Baxu-jotzaile batek eta bateria-jotzaile batek osatzen dute taldea; halere, ez dute gehiago

behar euren sludgecore doinuekin aretoetako hormak behera botatzeko. “Lagun batzuek eskuz eginiko bost anplifikadore eta sei bozgorailu ditugu, beraz, ekarri ta-

**Ikarass durangarrekin batera partekatuko du oholta La Casa Fantom bikote norvegiarrek**

poiak!” (barrez), esan dute. Ia bi hamarkada daramatza taldeak martxan, eta 30 herrialdetik gora zapaldu dituzte bidean. Lehenbiziko aldia izango dute gaurkoa Hiltegixen, baina ez Euskal Herrian; izan ere, azken urteetan hainbat biderrez egon dira euskal lurretan. “Oso eskuzabalak zarete Euskal Herrian, eta bertako zaleak oso bereziak zaretela uste dugu”.

Norvegiarrek batera, Ikarass durangarrak egongo dira Hiltegixen. Boskote durangarrak ere doinu ilunak jorratzen ditu. Kontzertuak 22:30ean hasiko dira.



Bård eta Lars Toverud.

**Lyceum Club**  
Fundación Bilbao 700

Martxoaren 4a,  
20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA  
DURANGOKO USALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jatekxoa@plateruena.net

Martxoak 2 22:00etan  
**ANARI + LIBE**  
Kontzertua

Martxoak 3 11:00etan  
**JOLASAREN TXOKOA**  
Birrziklatze tailerra

Martxoak 7 19:30etan  
**ZINE FORUM POLITIKOA**  
Filmea

JOLASAREN TXOKOA  
DITZALAR 17  
MARTXOAK 3  
MARTXOAK 5  
MARTXOAK 10  
MARTXOAK 18

zine forum  
POLITIKOA  
02/25  
UNDERGROUND  
03/07  
YO, DANIEL BLAKE  
03/14  
LA BATALLA DE ARGEL

# 'Epilogo bat' lanagaz ziklo bat itxeko asmoz dator gaur Anari Plateruenera

Anari Alberdigaz batera Libe gasteiztarra arituko da kultur guneko oholtzan. 'Epilogo bat' eta 'Ilargia erori da' diskoak aurkeztuko dituzte, hurrenez hurren, 22:00etan



Anari Alberdi 'Epilogo bat' aurkeztera etorriko da Durangora.

## MUSIKA • A.M.

Zure Aurrekari Penalak lanagaz irekitako bidearen segida da *Epilogo bat*, jarraipen naturala. 2015ean kale-ratu zuen diskotik kanpo geratu

zen abesti batetik hasi, eta hariari jarraipena emanez sei kantako EPa osatu zuten Anari Alberdik eta taldekideek; *Epilogo* izeneko abestia izan zen *Epilogo bat* diskoaren er-

namuina. Bi lanek unibertsoa eta giroa partekatzen dituzte, eta obra bakartzat ere ulertu daitezkeela azaldu zuen azkoitiarrak bere garaian eginiko aurkezpenean. Hitzei

dagokienez, kontzeptu bera darabil bueltara Alberdik oraingo honetan ere. "Epilogo usaina duen garai batean egindako epilogo bat da", azaldu du abeslariak.

Kontzertu sorta eskaini du da-goeneko azkoitiarrak *Epilogo bat* hau aurkezteko. Azken garaian bezala, Plateruenera kontzertuan Mikel Abrego, Mariano Hurtado, Xabier Olazabal *Drake* eta Ander Mujika izango ditu alboan Anari Alberdik.

Anarigaz batera, Libe arituko da gaurkoan Plateruenera oholtza gainean. Libe Garcia de Cortazarren

## Libek 'Ilargia erori da' diskoa aurkeztuko du gaur gauean bere taldeagaz batera

proiektua da hau. Ibilbide luzeko musikaria da bera; izan ere, aurretik, Izaki Gardenak eta Neubat taldeetan aritutakoa da.

*Ilargia erori da* Tolosako Bonberenea estudioan grabatu zuen taldeak 2017ko udan; grabaketan, Garcia de Cortazarrez gain, Txus Villalabeitiak (gitarra), Dani Arrizabalagak (bateria) eta Karlos Osinagak (baxua) hartu zuten parte.

## Geure Durangaldea

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo  
Durangoko Museoa



## Zentsura?

Aurreko astean inauguratu zen ARCO. 1982an lehenbizikoz ateak zabandu zituenetik, arte munduko hainbat pertsona elkartzen dira bertan otsailero. Aurten inoiz baino gehiago hitz egin da azokari buruz. Zergatik? Lehenengoz zentsuratu egin delako. Santiago Sierra artistaren 24 argazki hormatik kenduarazi dizkiote Helga de Alvear galeristari. Argazkietan Espainiar Estatuko preso politikoen erretratu pixelatuak azaltzen dira. Zeresana ematen du honek, izan ere, adierazpen askatasuna gero eta mugatuago dute artistek estatu honetan. Pentsatzen duzuna abesti batean azaltzea, liburu berri bat iragartzea, pertsona batzuen erretratuak ikusgai jartzea, eta abar arriskuko zerbait bilakatu da. Baina ze garaitan bizi gara? Artea beti izan da artistaren barrenak astindu eta publikoki azaltzeko bidea; hitzez esan ezin daitezkeen adierazi du arteak. Hainbat funtzio izan ditu arteak historian: errituala, erlijioa azaltzea, propaganda egitea, edertasuna plazaratzea, sentimenduak adieraztea... Hori mugatu nahi izan dute nak existitu izan dira, baina egungo errealitatean ekartzea zaila egiten zaigu, askatasunik ez izatea ez dugulako onartzen, gauza potoloa delako adierazpen askatasunik ez dugula jakitea. Dena den, onartu behar zaie askatasunaren mugatzaile horiei, sortutako iskanbilari esker arteari buruz berba egin dela. ARCOri buruz mintzatu dira lehenbizikoz batzuk, Santiago Serra izena Googlen bilatu dute hainbatek... agian ez dute us-te bezainbeste zentsuratzen, agian kontrakoa lortu dute.

## ZINEA • I.E. / A.M.

Gaur estreinatuko da Paul Urkijo-ren *Errementari* filma. Durangaldeko hainbat lagunek hartu dute parte pelikulan; tartean, Eneko Sagardoy aktoreak. Sagardoyk Sartael deabruaren papera antzeztu du filme honetarako. Durangaldeko lau umek ere hartu zuten parte grabaketan: Nahia Garciak, Uma Bracagliak, Haizea Garciak eta Eloi Ruiz de Erentxunek, hain zuzen ere.

Lara Izagirrek gidatzen duen Gariza Films ekoiztetxeak eduki du *Errementari* filmeko umeen castingaren ardura. Bestalde, Diego Martin durangarrak atrezista lana egin du pelikulan.

XIX. mendean Araban kokaturiko istorioa da *Errementari* filmean kontatzen dena. Neskato umezurtz batek baso zarratu batean bizi den

# Durangaldera dator Errementari pelikularen estreinaldia; gaur egongo da zinemetan

Euskal Herriko hainbat zinemetan emango dute filma; tartean, Durangon eta Zornotzan

Patxi Errementariaren sekretua deskubritzen dueneko kontatzen du pelikulak. Gaur estreinatuko da

## Eneko Sagardoy Goya saridunak Sartael deabruaren papera antzeztu du pelikulan

Hego Euskal Herriko zinemetan; eskualdean, Durangoko Zugazan eta Zornotzan eskainiko dute.



Errementariko lan taldea, aurkezpen egunean.

**hitz** liburutegia  
artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburutegia.com

#nobedadeak

HELDUENTZAT  
**NESKA BAT LEKU INPOSIBLEAN**  
Xabier Amuriza  
2018

UME ETA GAZTEENTZAT  
**100 KONTU ONDO EZA-GUTZEKO JANARIA**  
Askoren artean  
2018

MUSIKA  
**EASON**  
Izaro  
2018

MARTXOAK 2 MARTO  
17:00  
KALEAN OTSO ETREAN USO

APRILAK 8 ABRIL  
19:00  
La Gamba Teatro  
"SI VAMOS MUY MAL"

MAYATZAK 18 MAYO  
19:00  
"3 Y MARTES"

MARTXOAK 16 MARTO  
19:00  
MONOLOKOS 2

MAYATZAK 4 MAYO  
17:00  
"YERBA ETA DORTOKA"

EKANAK 1 JUNIO  
17:00  
"EGUR TALDARAK"

**Iurreta**  
Eleizateko Udala

2018

**Antzerkia Bultzatuz**

Sarrera dohainik  
Gonbidapenak hartzeko kultur etxean





# Ostalaritza gida

anboto

 Durango



**GORA GORA**  
Arriluzea kalea, 2 - DURANGO  
**Tel.: 946 8111 384**

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

 Durango



**KOBIKA JATETXEA**  
San Ignazio, 8 - DURANGO

**Tel.: 946 810 003**  
Egile sukaldaritza eta tradizionala.  
Menu bereziak eta karta.

 Durango



**PLATERUENA** Kafe Antzokia  
Landako etorbidea, 4 - DURANGO  
**Tel.: 946 030 300 - www.plateruena.eus**

Bokatak, pintxoak... Azoka egunetan bertako produktuekin egindago menu berezia karpan. Giro paregabea!

 Muxika



**ASTEI JATETXEA**  
Muniketa auzoa 8, MUXIKA  
**Tel.: 946 732 318**

Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak...  
Enpresa bazkariak. Eguneko menua.

 Durango



**IBAIZABAL KAFETEGIA**  
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO  
**Tel.: 946 550 185**

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

 Abadiño



**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak.  
Giro oso ona.

# Estetika gida

anboto

 Ile-apaindegia



**IUNIK**  
ILEAPAINDEGIA  
Antso Estegiz, 1  
DURANGO  
**Tel.: 946 216 491**

 Ile-apaindegia




**NUKLEO**  
ileapaindegia  
**946 582 996**  
Nizeto Urkizu, 14 behea  
ELORRIO

 Estetika zentroa PSE: 36/16



**Ana Camarero**  
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza  
lehen 55€ orain 38,5€  
%30eko deskontua  
Gaztetzatratamendua fruituen azidoekin

Martxoaren 1etik 25era  
Goienkalea, 16-1. esk - Durango  
Zentru ez-sanitarioa  
**Tel.: 946 817 380 - www.anacamarero.com**



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**

PILOTA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hasi da Biharko Izarrak pilota txapelketa prestigiotsuaren 15. aldia, eta, urtero legez, afizionatu mailan dauden pilotaririk onenetakoak ikusteko aukera dago Mallabiko pilotalekuan. Aurtan, Durangaldeak ordezkari bakarra izango du txapelketan: Gorka Otaduy berriztarra.

**Hirugarren urtez ikusiko zaitugu Biharko Izarrak txapelketan. Ze asogaz zoaz?**

Mallabiko txapelketa nibel handikoa izaten da. Afizionatu mailako 12 aurrelaririk onenak izaten dira bertan. Atzelariak ere onentsuenak izaten gara. Beraz, Biharko Izarrak txapelketan lan txukuna egitea eta lehenengo sailkapen fasea pasatzea gura nuke. Baina badakigu denok lehenengo erronda hori pasatzea ez dela erraza.

**Aurreko urteetako arantzatxoak kentzeko asmotan, beraz?**

Bai, polita litzateke erronda hori pasatu eta txapelketan jarraitzea.

**Ze helburu daukazu?**

Eskuko lesio baten ondorioz, bi hilabetez geldirik egon behar izan dut. Eta, jakina, duda dezente ditut ea eskuak nola izango ditudan. Hala ere, gogotsu nago eta gustatuko litzaidake lan txukuna egitea.

**Biharko Izarrak txapelketako partidurik gehienak lehiatuak izaten dira.**

Bai, hala da. Mallabiko txapelketak pilotari onak batzen dituzenez, partidu guztiak oso gogorak izaten dira; ez da partidu errazik egoten. Gainera, beste txapelketa batzuekin alderatuta, materiala ere oso exijentea izaten da eta hori ere igarri egiten da.

**Eskualdeko ordezkari bakarra izango zara. Zuretzat, zer suposatzen du Mallabian jokatzek?**

Beti esan izan dut Durangaldeko pilotariok zorte handia dugula, eskualdean txapelketa garrantzitsuak ditugulako. Niretzat, hemen jokatu ahal izatea gauza polita da.

**Etxean jokatzek presiorik eragiten dizu?**

Egia esan, ez. Durangaldean jokatzek ez dit presiorik eragiten. Gainera, etxetik hurbil aritzea abantaila bat dela esango nuke.

“**Mallabiko Txapelketak pilotari onak batzen dituzenez, partidu guztiak oso gogorak izaten dira**”

**Datorren egunean, martxoak 8, Xabier Zubiria bikotekide duzula jakutuko duzu lehenengo partidua.**

Aurrelari artista horietako bat da, eta beragaz partidu txukuna egitea gura nuke. Lehen partiduan Jon Alberdi eta Iker Mariezkurrena bikote indartsua izango dugu aurkari. Baina, egia esan, Mariezkurrenak urtebete darama geldirik lesio baten ondorioz, eta ez dakit gure kon-

# “Biharko Izarrak txapelketan lan txukuna egitea eta lehenengo sailkapen fasea pasatzea gura nuke”

Hirugarren urtez Gorka Otaduy berriztarrek Biharko Izarrak txapelketan parte hartuko du; eskualdeko ordezkari bakarra da



**Gorka Otaduy Sanchez**  
Pilotaria

**Berriz | 1996**

tra aritzeko moduan egongo den. Jokatzeko moduan badago, partidu oso gogorra izango dugu.

**Biharko Izarrak formatu berezia duen txapelketa da. Partidu batetik bestera bikoteak aldatu egiten dira. Nolako iruditzen zaizu formatua?**

Formatu oso interesgarria dela uste dut. Txapelketa askotan egun bakarrean erabakitzen da aurrera egingo duzun ala ez. Gainera, egun txar bat baduzu, kalera zoaz. Mallabian, berriz, egun eskas bat baduzu ere, beste hainbat partidu dituzu aurretik. Horrez gainera, hemen aurrera egiten duenak bere merituegatik egiten du; azken batean, gaur bikotekide duzuna bihar aurkari duzu eta. Orduan, Biharko Izarrak duen formatuak nabarmantzeko aukera ematen dio pilotariari.

**Iazko denboraldian, Añorgako eta Egiako txapelketetan garaipena eskuratu zenuen, eta pilotari moduan aurrerapauso bat eman zenuen.**

Egia esan, batzuetan joko bolarak izaten dira, eta zortea aldeko

baduzu eta bikotekidea ere ondo badabil, emaitza onak lortzen dira. Añorgan Peru Labakagaz irabazi nuen, eta Egian Iker Salaberriagaz. Oso ondo dabilzan pilotariak dira biak, goi mailakoak. Txapelketa hauetan, aurkari indartsuei irabazteko gai ginela erakutsi genuen.

**Azken urteotan, afizionatu mailako torneorik garrantzitsuenetan zabilta. Pilotari batentzat horrelako partiduetan egotea garrantzitsua da?**

Bai, oso garrantzitsua. Azken batean, pilotariontzat ia ezinbestekoa da horrelako txapelketetan aritzea. Gainera, nik badakit profesional mailara ez naizela iritsiko; beraz, maila handiko partiduetan egon ahal izatea pozgarria da. Bestalde, partiduz partidu hara eta hona ibiltzea gauza oso polita iruditzen zait, eta afizionatu mailak horretarako aukera bikaina eskaintzen dut.

**Beraz, ez duzu zure burua pilotari profesional lez ikusten?**

Ez. Nahiko txikia naiz atzelaria izateko, eta betidanik jakin izan dut ez nintzela profesional mailara iritsiko. Horregatik, profesionaletaraz jautzia emateko zorian dauden pilotariak baino lasaiago joaten naiz partiduetara. Hori dut abantaila.

**Hala ere, afizionatu mailan jokatu-ta, partiduak irabaztea izango duzu**

**helburu, ezta?**

Bai, partiduak irabaztera joaten naiz. Dudan dena eman eta ondo irteten bada, bikain, eta gaizki irteten bada, hurrengo helburuetan pentsatzen hasten naiz.

**Zeintzuk dira zure hurrengo helburuak?**

Helburu nagusia Biharko Izarrak txapelketan lan txukuna egitea da. Lesioaren ostean, frontoian gustura aritzea eta pilotaz gozatzea espero dut. Ostean, berriz, Añorgako Txapelketa izango dut.

**Binakako txapelketako lehenengo fasea bukatu ostean, ze bikote ikusten dituzu faborito txapela irabazteko?**

Danel Elezkanok eta Beñat Rezus-tak oso indartsu daudela erakutsi dute; baita Joseba Ezkurdiak eta Jose Javier Zabaletak ere. Hauek txapelketa ondo hasi ez zuten arren, partiduz partidu gorantz joan dira eta sorpresaren bat eman dezaketelakoan nago.

**Aurtengo txapelketan, enpresek hainbat bikote aldatzea egin dituzte. Zer iruditzen zaizu hori?**

Aldaketak lesio bati lotuta badaude, ulergarriak dira. Baina, horrelakorik ez badago, pilotazalea mareatzea baino ez dute lortzen, eta hori zaindu egin beharko lukete.

“**Biharko Izarrak txapelketak duen formatuak pilotariari nabarmantzeko aukera ematen dio**”

“**Txikia naiz atzelaria izateko, eta betidanik jakin izan dut ez nintzela profesional mailara iritsiko**”

# Durangoko Kulturalaren B taldea mailaz igotzeko hautagai sendoa da, 16 partidu jarraian irabazita

Iaz sortu zuten taldea gazteei aukerak emateko eta jokalariek erantzuten ari dira; bigarren urtez jarraian igo daitezke



Hamar partidu falta dira liga amaitzeko eta asteburu honetan Etxebarrin jokatuko dute, San Antonio taldearen aurka.

## FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Kulturaleko harrobia ezin hobeto erantzuten ari da klubetik egindako apustuaren aurrean. Iaz B taldea sortu zuten, jokalariek gazteek esperientzia hartu eta jokatzeko aukera gehiago izan zezaten. Denborak erakutsi du bete-betean asmatu zutela. Iaz mailaz igo ziren eta aurtengo, Bigarren Erregionalean, azke-

nengo 16 partiduak irabazi dituzte. Bederatzi puntuko aldea dute bigarren sailkatuarekiko eta igoera lortzeko hautagai sendoak dira.

Iurretakotik etorritako jokalariek bi kenduta, gainerakoak Kulturaleko harrobikoak eta oso gazteak dira: jokalariek %90ek 21 urte edo gutxiago dituzte. Gainera, eurretako bi sarritan deitu dituzte lehenengo taldeak: Iker Unzueta abadiñarra eta Ander Zuazo durangarra. Dagoeneko Hirugarren Mailako bina partidutan parte hartu dute.

### Talde nagusiagaz kohesioa

Talde nagusiko gidariek gertutik jarraitzen diote gazteen garapenari,

Jose Antonio Sanchis Txotxe gazteen taldeko entrenatzailearen esanetan. "Oso kontuan hartzen gaituzte. Astero galdetzen digute zelan

**"Talde bien arteko kohesioa dago. Oso ondo funtzionatzen du proiektuak, momentuz"**

gauden eta ezer behar dugun. Talde bien arteko kohesioa dago eta hori inportantea da. Momentuz, proiektuak oso ondo funtzionatzen du".

Txotxek oso ondo ezagutzen dituzte jokalariek Kulturaleko harrobiko entrenatzailea izan delako. Horregatik eskaini zioten proiektu berriko gidaritzak. Gazteak oso motibatuta dabilzala dio eta denek ematen dutela berea. "Goliek gehien sartu duen taldea gara eta jokalariek askoren ekarpenari esker da. Ez dugu golegile nabarmen bat, hainbat gol sartu dituzten asko baino", adierazi du. 20 partidutan 57 gol daramatzate eta taldeko pitxitxia Iker Unzueta da, bederatzi gol sartuta.

Albisterik txarrena Carlos Cañadaren belauneko lesioa da. Iaz 40 gol sartu zituen, baina denboraldi honetan ezingo du gehiago jokatu.

## Frontenis torneoa antolatu dute Mallabian

### FRONTENISA • J.D.

Mallabia Kirol Taldeak eskualdeko frontenis txapelketa antolatu du. Martxoan hasi eta maiatzean amaituko da. Buruz buruko torneoa da, ligaxka formatuan. Parte-hartzaileak mailaren arabera banatuko dituzte eta talde bakoitza zortzi jokalariz osatuta egongo da.

Izena emateko azken eguna domeka da eta interesatuta daudenek telefono honetara deitu dezakete: 669 028 718. Bazkide direnentzat zortzi euro da izen-ematea eta beste euro bat jokatzeko. Bazkide ez direnek, aldiz, euro bi ordaindu behar dute jokatutako partidu bakoitzeko.

## Ez da apusturik izango Azkargortaren eta Polancoren artean

### AIZKORA • J.D.

Orain aste bi Luis Polanco otxandiarrek aizkora desafioa botatzen zion Alexander Azkargorta aretxabaletarrari. Toki eta ordu bat jarri zituen adostasun batera heltzeko. Azkargortak deiarri erantzun zion eta Otxandioko Basaguren jatetxean batu ziren biak. Nork bere proposamena egin ostean, ez zuten adostasunik lortu. Polancok uste du Azkargortak aurretik erabakita zuela akordiora ez heltzea. "Erraztasunak" eskaini zizkiola, baina ez zituela onartu dio. "Apusturako gogorik barik etorri zen", azaldu du Polancok. Beraz, aizkolari otxandiarrek beste aukera bati itxaron beharko dio bere dohainak erakusteko.

**Jokalariek %90ek 21 urte edo gutxiago dituzte. Eurretako bi sarritan deitu dituzte lehen taldeak**

### Asteko kirolaria



JULEN CALLEJA GARCIA

Zaldibar, 1996

## "Hasieran jokalariek ez zuten ulertzen zergatik utzi genien gola sartzen"

Zalduko benjaminen taldeko entrenatzaileak balioak emaitzaren gainetik jarri zituen

**Gertasport eta Zaldia taldeak izan ziren protagonista. Julen Calleja Zaldibarko taldeko entrenatzailea da, Mikel Marinegaz batera.**

**Markagailuan 4-3 atzetik zindoazten partiduko azken minutuan. Zer gertatu zen?**

Kolpe bat hartuta, Gertasport taldeko jokalariek bat lurrean zegoen eta epaileak geratu egin zuten partidua. Gaztea artatu ostean, jokaririk sake neutral batez ekin zioten

berriro. Jokoa geratu aurretik baloiaren jabetza Gertasportena izan zenez, baloia euren itzultzeko agindu nien nire jokalariei. Gazte batek ez zuen ondo ulertu; baloigaz aurrera jarraitu eta gola sartu zuten. Orduan, besteek baloia zelai erditik atera zutenean, geldirik egoteko eskatu nien. Horrela egin zuten, eta Gertasportek garaipenaren gola sartu zuten. Ez zegoen beste ezertarako astirik. Gola sartu eta segituan amaitu zen partidua.

**Gazteek zelan hartu zuten erabakia? Ulertu zuten?**

Hasieran apur bat haserre zeuden. Ez zuten ulertzen zergatik utzi genien azken gola sartzen. Ondoren, patxada handiagagaz azaldu nien, eta ulertu zuten. Sarritan pazientzia izan behar da. Lehenengo azalpenean batzuek ulertuko dute, eta beste batzuek ez. Ba, horiei errepikatu egin behar zaie sarritan, arrazoiak barneratzen duten arte.

**Partidua ikusten zeuden gurasoek zelan erreazionatu zuten?**

Txalo batzuk izan ziren eta gustatu zitzaizela uste dut. Alde horretatik, erantzun ona egon zen.

**Ume mailako gurasoen jokabidea beti ez da ereduagarria izaten.**

Denarik dago. Gure mailatan ez da arazo askorik egoten gurasoen partetik. Telebistan ikusten diren borrokariek eta antzerkariek ez dut sekula bizi izan.

**Entrenatzaile ez ezik futbol jokalaria zara. Zelan Zaldian?**

Denboraldia ondo doa, sailkapenaren erdian gaude. Nik iaz belauneko lotailu-haustura izan nuen eta aurtengo zaintiratu izan dut toki berean. Errekuperatzen nabil.

**Kirolean formakuntzari eta balioei buruz berba egiten denean, ondorengo gertaera erabili daiteke adibide moduan. Benjamin mailako**

# Hainbat urteren ostean, ekinaren ekinez, Euskal Ligarako igoera fasera sailkatu da Ibaizabal

Bizkaiko Ligatik Euskal Ligara igotzeko bigarren fasea hasiko du asteburuan Durangoko Ibaizabal eskubaloit taldeak

ESKUBALOIA • JOSEBA DERTEANO

“Hainbat urtean ez dugu sailkatzerik lortu, baina tematiak gara. Beti eutsi diogu esperantzari eta lanean jarraitu dugu”. Ibaizabal eskubaloit taldeko Irati Bereinkua jokalariren berbak dira, Euskal Ligarako igoera faseko lehenengo partiduen atarian. Ekinaren ekinak saria izan du aurten eta, aspaldiko partez, ligako onenen aurka jokatu amaituko dute denboraldia. Igoera lortu zein ez, esperientziagaz gozatzeko prest daude.

Bizkaiko eta Gipuzkoako sei talderik onenak sailkatu dira igoera faserako. Durangarrek etxean jokatu dute aurreneko partidua. Zapatuan izango da, 20:00etan, Landako kiroldegian. Irauli Bosteko talde donostiarra —sasoi bateko Bera Bera— izango dute aurkari. “Taldea ona da, baina igoera faseko talde denak dira maila handikoak”, uste du Bereinkua.

Sei taldeko ligaxkako onena Euskal Ligara igoko da zuzenean. Gainerako bostek beste fase bat jokatu dute mailaz igoko duen bigarren



San Adrian taldearen kontra lortu zuten garaipen garrantzitsuaren ostean ateratako argazkia.

